4. Umeak 2;04;24 adina duenean zehar-osagarriarekiko, hots, datiboarekiko formak egoki erabiltzen hasten da. Arlo honetan ere adizki iragangaitzak zein iragankorrak ikus ditzakegu:

(11) *ala, jausi jate (zait)!; garajie e(g)ingo dotzau (diogu); ze bestelan kenduko dozku (digu) (2;04;24); hau no(r)k apurtu dozte (dit)? (2;05;05)*

5. 2;06;05 adina duenean objektu zuzenarekiko komuntadura hasten da gauzatzen. Edozelan ere, une honetan hirugarren singularrak eta pluralak baino ez ditu bereizten:

(12) *zuk honek (hauek) bota dozuz (dituzu); bota e(g)in dauz (ditu) (2;06;05)*

Objektu zuzena lehen pertsona (ni) edo bigarrena (zu) duten adizki bat baino ez dut bildu haur honen korpusean, 3;09;11 adina duenean:

(13) *joten nau holan ta, hartzen dot eta arineketa baten ta... (3;09;11)*

Goizago, objektu zuzenak (ni, zu) zeharkako (niri, zuri) bihurtzen ditu eta halako adizkiak ekoizten ditu:

(14) *o(ra)in, ja, jo eiten dotzet (diot) kotxiari (2;06;24); ez dotzet (diot) ikusiko Jurgiri (2;10;12)*

6. Orain arte ikusi ditugun forma guztiak orainaldikoak izan dira. Iraganekoak, ostera, 2;07;05 adina duenetik aurrera hasten da erabiltzen:

(15) *Txi-Tximino Gorri juen zan e azokara ta ja!, amatxo nahi abela ta esan dotzen o; ta gero juen zan ta kausi e(g)in zan e; ba ba gero ehiztari bat etorri zan eta han itxi zuen (2;07;05)*

Nolanahi ere, sarritan, orainaldiko formei *-n* morfema erantsiz burutzen ditu zenbait iraganaldi:

(16) *dotzen (dion),, dotzuten (dizuten); dogun(dugun); doten (dudan); ...*

Lehenago gramatika-kasuen jabekuntza-garapenean ikusi dugun legez, oraingoan ere, komuntadura-ezberdinak erabiltzen hasten denean, aldi batean behintzat, erabilera eta erabileraz eza ikus ditzakegu batera. Esan nahi dudana zera da: batzuetan ez duela forma jokatu ekoizten, isildu egiten duela. Hona hemen halako adibide batzuk:

(17) *nik e(ra)bili lehen; hau sartu (2;07;09); honek eruen; ezebez emongo (2; 04;24); baina niri osatu; gero momoroak kendu (2;06;05)*

Arlo honetan umearen jabekuntza-maila nabariago gera dadin, 2. taulan ekoizten dituen adizki jokatu guztiak zerrendatuko ditut, adibide bakoitzean datarik goiztiarrena eta hiru urtera arte ekoizten dituen kopuruak zehaztuz.

(TAULA, 32. orrialdean)

## 2. Ondorio-bilketa

Datu hauek ikusirik, bigarren atal honetan gramatikaren jabekuntzaren garabideak jarraitzen dituen lerro orokorrak aurkezten ahaleginduko naiz.

1. Bada gramatika-ezaugarririk gabeko aro goiztiar bat. Aro honetan, grabaketak hasi zirenetik, hots, 1;05;19 adina izan zuenetik 1;11;05 adineko grabaketara arte, ez du gramatika-ezaugarririk ekoizten. Ekoizpen linguistikoa ez du gramatika hatsarreez egituratzen.

2. Gramatikaren garapena haur honen ekoipenean, beraz, une batetik aurrera gertatzen da, 2;00;05 adineko grabaketatik aurrera, alegia.



2. TAULA  
HIRU URTERA ARTE DARABILTZAN ADIZKI JOKATUAK

naiz	2;03;09	44	dut	2;05;05	143	zait	2;04;11	8
zara	2;05;21	14	ditut	2;10;12	9	zaizkit	2;10;29	2
da	2;00;05	477	duzu	2;05;05	39	zaio	2;09;00	7
gara	2;08;13	4	dituzu	2;06;05	2	zaie	2;10;29	1
zarete	-		du	2;04;24	88			
dira	2;04;24	30	ditu	2;06;05	5	dizut	2;06;05	3
			dugu	2;04;24	26	diot	2;06;05	10
dago	2;00;05	138	ditugu	2;09;00	16	diet	2;06;25	1
dagoz	2;04;11	29	duzue	2;07;05	1	didazu	2;07;05	5
noa	2;04;24	7	dute	2;05;05	14	dit	2;05;05	8
zoaz	2;04;24	1	dituzte	2;09;00	4	dizkit	2;10;29	1
doa	2;04;24	16				dizu	3;00;10	2
doaz	2;05;21	4	dakit	2;03;09	79	dio	2;08;13	7
dator	2;05;05	13	dakizu	2;04;11	20	digu	2;04;24	2
dabil	2;03;09	3	daki	2;01;19	16	diogu	2;04;24	2
dabiltza	2;06;24	3	dakigu	2;11;12	1	dizkiogu	2;11;12	2
nintzen	2;08;13	5	daukat	2;04;11	19	nizun	2;11;12	1
zen	2;07;05	36	dauzkat	2;08;13	2	zidan	2;11;12	1
ziren	2;10;12	10	daukazu	2;06;05	6	genion	2;09;00	1
			dauka	2;01;19	47			
			dauzka	2;09;00	1			
			daukagu	2;07;05	6			
			dauzkagu	2;11;12	2			
			daukate	3;00;10	1			
nuen	2;08;13	3						
			zenuen	2;10;12	1			
			zuen	2;07;05	18			
			genuen	2;10;12	1			
			zituzten	2;11;12	1			

3. Gramatikaren garabidea ez da bat-batean gertatzen. Urratsak edo aroak bereiz ditzakegu, ordea. Nabaria da, hemen azaldu ditudan datuen arabera, aditz-flexioaren inguruan gertatzen den mailakaketa: komunztadurarik gabeko aroa, subjektuarekiko komunztaduraren agerrera, zehar-osa-garriarekiko komunztaduraren agerrera, zehar-osa-garriarekiko komunztaduraren agerrera eta, azkenik, aldiaren agerrera.

4. Edozelan ere, edozein gramatika-kategoriaren jabe-kuntza garatzen hasten denean, erabilera ez da ehuneko ehunetan gertatzen hasieratik. Bereganatutako kategoria berriak aldi bat behar du erabilera osoa izan dezan. Jokabide hau jabe-kuntza mailakatuaren ondorioztat hartzen dut. Aurreko aroan haurrak erabili duen egitura ez du bat-batean alboratzen ikasi berri duen egituraren alde. Egitura berria apurka-apurka hedatzen da, aurreko egitura zaharkitua desagertu arte.

Honela, adibidez, ergatiboaren jabe-kuntza bereganatzean (*nik apurtu*, esaterako), oraindik ere, aldi batean ergatiborik gabeko egitura (*ni apurtu*, esaterako) egiten jarraituko du, ergatiborik erabiltzen izan ez duen aroan egiten izan duen bezala.

Ez dut uste, beraz, erabilera hau akats moduan hartu beharko genukeenik.

Lehen ataleko datuetan erakutsi ez ditudan arren, badira azpimarratu nahi ditudan beste berezitasun garrantzitsu bi ere. Hona hemen:

5. Nolabait, umea, gramatika-hatsarreez jabetzen da garapenean zehar. Umea gai da bere ekoizpen linguistikoa gramatika-erizpideen arabera zuzentzeko. Bere produkzioaren zuzenketa egiten du. Hona hemen adibide batzuk:

(18) *hori ez dau (du), horrek ez dau (du) erueten (2;05;21); ba nik ni etorri naiz zuregana ta... (2;07;05); bai, ez de(u)kot, nik ez de(u)kotez (dauzkat), ez, nik ez de(u)kot anai txikirik (2;08;13); ze Jontxuk Jontxu ez zan konturatu (2;10;12); hor be(re) zelan dekogun (daukagun) errobedak eta zelan dekoguzen (dauzkagun) errobedak (2;11;12); ni nik holakue bade(u)ket (3;00;00); niri niri hau nik niri honek (hauek) gustetan jatez (zaizkit) (3;01;28); hemen da(g)uz, hemen da(g)u pegatinie (3;02;04); hemen da(g)uz ur tantak ze heliziek botatzen dau (du), heliziek botatzen dauz (ditu) (3;02;04)*

Euskara bigarren hizkuntza bezala ikasten duen gizaki heldu batek halako zuzenketak egingo balitu, gramatika-erizpideez zuzentzen duela bere hizkuntza esango genuke. Hor-taz, zergatik ez diogu onartuko ahalmen berbera 3 urte baino ez dituen haur bati? Haurra ez da kontzienteki gramatikaz jabetzen, baina gramatika legeak erabilirik taiutzen eta zuzentzen du bere ekoizpen linguistikoa. Nolabait, beraz, gramatikaz jabetu dela esan dezakegu.

6. Halere, badira berezko bilakabidea jarraituz ikasten ez dituen gramatikahatsarreak. Honek ez du esan gura gramatika-hatsarreez ez dela jabetzen, helduok darabiltzagunak ez dituela bereganatzen baino. Leku ezagatik ez dut jokabide honen arrazoia sakonduko. Arlo honetan, beraz, helduen ekimena eta eskolarena beharko du haurrak, eta agian haur guztiek.

Halako adibide bi aipatuko ditut. Batetik, ume honek objektu zuzenak lehen eta bigarren pertsona direnean, NOR-NORK sistemako adizkiak erabili beharrean (*nauzu, zaitut...*), NOR-NORI-NORK sistemakoak darabiltzala (*dizut, didazu,...*) ikusi dugu. Adibide zuzen bat duen arren (ikus 13.a), gehienak okerrak dira (ikus 14.a).

Bestetik, iraganaldiko adizkiak gauzatzean, lehenago aipatu dudan legez, gehienetan orainaldiko formei -n morfema eransten die. Jokabide hau NOR-NORK (*nuen/doten, zenuen/dozun, ...*) eta NOR-NORI-NORK (*nizun/dizudan, zenidan/didazun;...*) sistemetan egiten du. Gauza bi ikusten ditut arazo honetan. Iragantasuna adierazten duen -n morfemaz jabetu da. Alabaina, morfemen hurrenkera ez du alda-


tzen orainalditik (NOR-NORI-NORK, *d-/hura, -zu-/zuri eta -t/nik, dizut* forman, adibidez) iraganera (NORK-NOR-NORI, *n-/nik, zero-/hura eta -zu/zuri, nizun* forman, esaterako).

Akatsak akats (akatsak ote?), haurrak forma berriak (berriak ote?) eraikitzen ditu eta gramatika-hatsarreez baliatzen da, baina ez dira helduok darabiltzagunak.

### 3. Eztabaidagaia: gramatika-ahalmena innatua da

Nola azal liteke hain adin goiztiarrean, hots, hiru urte dituenean, umea gramatika-hatsarreez jabetu dela? Nola azal liteke hain adin goiztiarrean gai dela ekoizpen linguistiko osoa, perpaus bakunak zein oinarritzko mendekoak eta elkar-tuak, gramatika-legeez gauzatzeo?

Hona hemen azalpen bat labur: hizkuntza-ahalmena here-dentzia genetikoaren bidez jasotzen dugu gizakiok. Here-dentzia genetikoaren bidez, besteak beste, Gramatika Uni-bertsala deiturikoa jasotzen dugu. Gramatika Unibertsala hatsarreek eta parametroek osatzen dute. Hatsarreek, abstrak-toak izanik, hizkuntza guztientzat berak dira. Horrexegatik hizkuntzen artean dauden berdintasunak. Parametroek aukerak eskaintzen dizkiote gizakiari, eta aukera horien artean, haurrak, entzuten duen hizkuntzaren arabera, aukeratariko bat hautatu behar du. Parametroen bidez ezberdintzen dira hizkuntzak, beraz. Haurrak garuna heltzean bereganatzen ditu hatsarreak eta parametroak eta hauei esker gai izango da bere inguruan entzuten duen hizkuntzaz goiz jabetzeko. Baina hau guztiau zehatzago, hurrengoan eztabaidatuko dugu.



Barrutia Ikastola. Gernika

# Ikasgelako Berbaldia:

irakaslea eta ikasleak nola komunikatzen dira elkarren artean bigarren hizkuntzaz?

Pablo SOTÉS RUIZ

Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Artikulu honen abiapuntuak euskarazko eredu elebidunak dira eta batipat, gehiengoan hizkuntza (gaztelania) duten ikasleentzat etxetik eskolarako aldakuntza suposatzen duten murgiltze programak. Murgiltze-programek ikasleen bigarren hizkuntzaz bideratzen dute irakaskuntza. Programa hauetako irakasleak elebidunak dira eta horregatik ikasleek beren ama-hizkuntza erabil dezakete, hau da, ikasleek gaztelania erabil dezakete irakaslearekin nahiz beste hurrekin komunikatu ahal izateko. Beste aldetik, murgiltze-programek sortzen duten egoera hezgarria berezitat har daiteke ikasleak bi zeregin handien aurrean aurkitzen bait dira: euskara eta eskolako edukinak -hain zuzen euskaraz transmititzen direnak- aldi berean ikasi behar dituzte. Testu inguru ugarietako ikerketek erakusten dutenez ezaugarri ezberdinak ikasleen gaitasun linguistiko eta akademikoen garapenean programa-mota hauen emaitzak positiboak dira.

Murgiltze-programetan aurkitzen diren haur gehienentzat eskola da euskara ikasteko eta erabiltzeko dagoen testuingururik garrantzitsuena. Horregatik, testuinguru honen barruan irakasleak bigarren hizkuntzaz gauzatutako komunikazio errealeko aukerak ematen ditueneko funtzioa asumitu behar du. Modu honetan, murgiltze-programetako irakaslea benetazko paradoxa baten aurrean aurkitzen da eskolarizatzeko hasieran: ikasleak nola irakatsi ezagutzen ez duten hizkuntza batetan?. Soluzioa planteatu behar da irakasleak eta ikasleak elkarrekin erakitzen duten berbaldiari edo diskurtsoari buruzko ikusmolde holistikoa eta dimentsioaniztasun batetik.

Tradizio linguistikoan eta hizkuntzen didaktikan oinarrituriko ikerketa gehienek hizkuntzaren produktuan ikusmira jarri dute, bigarren hizkuntzako gaitasun linguistikoan eta lehen eta bigarren hizkuntzaz transmititzen diren edukien errendimendu akademikoan interesa jarriz. Hala ere, ikerketa guzti hauek irakasleen eta ikasleen arteko pertsonarteko komunikazioan inplikaturik dauden prozesu psikologikoak ahaztu egin dituzte.

Artikulu hau euskarazko murgiltze-programa baten hasierari buruzko guk egindako ikerketa batetan oinarritzen da. Gure ikerketak irakaskuntzako faktoreen garrantzia agerian jartzen du, eta honekin batera ikasgelaren barruan ematen diren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuena. Murgiltze-programen kurrikulua, irakaslearen irakaskuntzako prozedurak eta ikasgela barneko berbaldia eraikitzeko irakasleak eta ikasleak elkarrekin martxan jartzen dituzten elkarriketa-prozedurak aldi berean aztertzea izan da guk burutu dugun ikerketaren asmoa.

Artikulu honen lehen zatian eskolako berbaldiarekin eta elkarrekiko iharduerarekin irakaskuntza-ikaskuntza prozesuek dituzten harremanak aztertzen dira. Bigarren zatian bigarren hizkuntzaz transmititutako esanahien negoziazioa eta eraikuntza irakaslearen eta ikasleen artean nola gertatzen den aipatzen da. Bukieran euskarazko murgiltze-programa baten hasieran irakasle/ikasle elkartrukeetan agertzen diren koherentzia-graduak eta hoiengarapena zehazten dira.

## □ Eskolako Berbaldia eta Elkarrekiko iharduera

Ikasgelan agertzen den berbaldiaren analisia ezinbestekoa iruditzen zaigu irakaskuntza-ikaskuntza egoeratan burutzen diren mekanismo eragileak ulertzeko. Honekin irakaslea eta ikasleak inplikaturik dauden elkarrekiko iharduera azpimarratu behar da, partaide hauen artean esanahiak konpartitzeko tresnarik eraginkorrena bihurtzen dela uste bait dugu.

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan berbaldiak bitartekotasun-papera jokatzen du, prozesu hauek eszenatoki sozial eta kultural zehatz batetan bilakatu den prozesu komunikatibo bezala ulertzen baldin bada. Ikasgela barneko irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak ezin dira ulertu ezta azaldu ere ikasgela murgilduta dagoen sistemaren osagarri sozio-kultu-



Barrutia Ikastola. Gernika



ralak eta hezgarriak kontutan hartzen ez badira: sistema hezgarri orokorra, ikastetxearen inguruko gizartea, ikastetxearen sistema hezgarria eta bere antolamendua, ikasgelako baldintzak eta funtzionamendua, ... edo kontrako norabidean planteatuta, hau da, ikasgelatik gizarterako norabidean. Murgiltze-ereduetan faktore soziokulturalek eta hezgarriek bere berezitasunak daukate, esate baterako, komunitate berean bi hizkuntzen erabilpena (gure kasuan euskararen erabilpena komunitateko zein testuingurutan ziurtatzen da?) edo bi hizkuntzen eta, batik bat, bigarren hizkuntzaren tratamendua sistema hezgarrian.

Berbaldiaren bitartekotasun-papera azpimarratzean objektu eta ekintzeekiko erlazioak ezartzeko partaideek erakusten duten gaitasuna berbaldiaren ezaugarri formal eta estrukturalen gainean jartzen da. Bigarren hizkuntzaren eskurapena eskolako barrutian garatzen denean berbaldiaren funtzio komunikatiboa besteen gainean nagusitzen da.

Ikasgelako irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak funtsean elkarrekintza-egoerak dira. Elkarrekintza-egoera hauetan irakasleak era sistematiko eta antolatu batez laguntzen die ikasleei errealitate fisiko eta sozialari lotutako ezagutzak erai-ki, bereiz eta aberas ditzaten. Irakaslea eta ikasleak elkarre-ko ihardueretan inplikatzeko dira elkarren artean komunikatzeko asmoz. Irakaslearen eta ikasleen arteko elkarrekiko ihardueraren barruan partaideek erabiltzen duten mintzaira esanahien negoziazioa laguntzen duen instrumenturik funtsezkoenetariko bat bezala agertzen zaigu.

Dena dela, eskolako berbaldiak hartzen du bere benetazko zentzua baldin eta bakarrik irakaslearen eta ikasleen artean

mantentzen den elkarrekiko ihardueraren barruan ulertzen bada. Honekin irakaslearen eta ikasleen hizketaz gain elkarrekiko ihardueran parte hartzen duten gainontzeko aspektuak ere azpimarratu nahi dira, hala nola, testuinguruko euskarria, elkarrekin burutzen ari diren zereginen izaera, edota iharduerak jarraitzen duten sekuentziak edo formatoak.

Ikasgelako irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan partaideen artean ematen den elkartrukaturiko esanahien eraikuntzak eskolako kurrikulua osatzen duten edukiak abiapuntutzat hartzen ditu. Euskarazko murgiltze-programaren hasieran jarraitzen den kurrikulua "interesguneen" bitartezko irakaskuntza globalizatuan oinarritzen da. Interesguneak ikasleen ezagutzak eta interesak bigarren hizkuntzaz bideratutako eskolako aktibitateekin harremanetan jartzen saiatzen dira. Interesguneak haurrentzat hurbilak eta ezagunak dira eta ikasgelan sor daitekeen edozein egoerataro moldatu behar dira. Interesguneak esperientzia sozial edo naturalei lotuta daude eta jeneralean ipuinen bidez aurkezten dira. Interesgune bakoitzaren inguruan area kurrikular guztiak globalizatuta aurkitzen dira: hizkuntza, matematika, plastika, musika eta psikomotrizitatea, area guztien funtzio integratzailea osatzen dutelarik. Ikasturtean zehar interesgune ezberdinak garatzen dira, esate baterako, etxea, kalea, iñauteriak, jantziak, oporrak, etab..

Kurrikuluaren edo esperientzia pertsonalen inguruan irakaslea eta ikasleak elkarrekin komunikatzera heltzen badira beraiek eraikiko dituzten elkartrukaturiko esanahien eremuak gero eta zabalagoak izango dira. Horrela, haien artean euskaraz komunikatzeko elkartrukaturiko esperientzia berri gehiago lortuko dute, hau da, irakaslearen eta ikasleen arteko zubia gero eta zabalagoa izango da. Eta azken finean hori da eskolako lortu beharko lukeen lehen helburu edo xedea: eskolako partaideen artean komunikazioa lortzea. Horretarako, instituzio eskolarrak irakasleen eta ikasleen arteko irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan oinarritzen diren funtzio sozial zehatzak ahalik eta hobekien bete behar ditu. Funtzio sozial hoi arabera irakasten diren ezagutza motak, ezagutza horiek transmititzeko erabiltzen diren zereginak eta partaideek onartzen dituzten rol edo paperak, neurri handi batetan, zehaztuta gelditzen dira.

Gure ikerketak aurreko ikerketa gehienek ondukoak baieztatzen ditu. Ikasgelaren barruan irakasleak eta ikasleak jokatzeko dituzten rol edo paperak finkatuta daude: paperen banaketan nabariena da irakasleak irakatsi egin behar duela eta ikasleek ikasi egin behar dutela behatzea. Egoera finkatu honetan irakasleak nahi duenean txandak hartzen eta ematen ditu eta horren arabera ikasleak txandak bete ditzakete. Kurrikuluaren ikasgaietan irakasleak zereginak planteatzen ditu eta ikasleei leku gutxi gelditzen zaie haien intereseko zereginak proposa ditzaten. Eta bestetik, irakasleak transmititzen dituen ezagutza-motak edukian zentratuta daude eta gertakizunaren zuzentasuna bilatzen dute prozesuaren ulertzearen gainetik.

Murgiltze-ikasgelan garatzen diren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak oinarritzko hiru elementuen arteko erlazio dinamikoan oinarritzen dira:

- mailari dagokion kurrikuluaren barruan dauden eskola-



ko edukiak eta prozedurak, bigarren hizkuntzaz bideratzen direnak

- irakasleak kurrikuluaren eta ikasleen arteko bitartekari-lana egiten du azken hauek eskolako ezagutzak bigarren hizkuntzaz beregana ditzaten

-ikasleek irakaslearen laguntzaz eduki eta prozeduren norbere eraikuntza eta berreraikuntza-prozesua aktiboki burutzen dute

Aurrerantzean eskolako berbaldian eragin duten hiru elementu (kurrikulua, irakaslea eta ikasleak) hauen arteko erlazioak eta zehazpenak adierazten saiatuko gara.

□ **Esanahiaren Eraikuntza**

Euskarazko murgiltze-programetako irakasleek aldi berean helburu bikoitza lortu behar dute: eskolako eduki eta prozedurak irakastea eta euskara irakastea, gainera bigarren hizkuntza komunikazio-tresna izanik. Testuinguru honen barruan hizkuntza berri baten eskurapenak partaideen arteko elkarrekintzetan hizkuntza horretaz (euskaraz) transmititzen diren esanahien interpretazioa eta negoziazio-prozesua suposatzen du. Horrek esan nahi du irakasleak eskeintzen duen input edo mintzairari edota beste ikaskideek eskeinitako input-ari ikasle bakoitzak bere zentzua ematen diola. Bigarren hizkuntza eskuratzen ari den ikaslea hizkuntza horretaz jasotzen duenari gero eta esanahi gehiago ematen dio, bidena-barrean hizkuntza berriaren forma eta egitura linguistikoko ikasiz. Hori delata, bigarren hizkuntza erabiltzeko aukerak hizkuntza berriaren ikaskuntza errez dezaketela baieztatu daiteke.

Bigarren hizkuntzaz bideratzen diren esanahien negoziatioa eta eraikuntza hasten da irakasleak eta, bereziki, ikasleek komunikazioa kokatzen ari den egoera ulertzen duten momentutik. Ikasgela barneko edozein egoera komunikatibotako irakasleak testuingurua prestatzen du kurrikuluaren barruko edukiak eta prozedurak irakasteko burutzen dituen zereginak egitura eta antolatzeke helburuz. Egoera komunikatibo batetan partaideen kokapen fisikoak eta baliabide materialen erabilpenak testuinguruko euskarria osatzen dute. Hoiaren artean ikasleentzat sentimenezko laguntzak dira nabarmenenak, hala nola, irakaslearen keinuak edo ikusmenezko materialak (objektuak, irudiak, ...). Testuinguruko euskarriek normalean egoera komunikatiboari zentzua ematen laguntzen dute.

Ikaskuntza-eduki eta zereginen inguruan irakaslearen eta ikasleen elkarrekiko iharduera artikulatzen da elkarrekintza sekuentzia egonkorretan. Elkarrekintza-sekuentzia edo formato hoietan irakaslearen eta ikasleen rol edo paperak eta parte hartzeko behar dituzten txandak gehienetan irakaslearen-gandik erregulatuta agertzen dira. Eskolako kurrikuluaren arloei dagozkien ikasgaietan burutzen diren zereginen aurkezpen, garapen eta bukaeran irakasleak antzeko elkarrekintza-sekuentziak jarraitzen ditu.

Sekuentzi egonkor hauei esker ikasleek nola jokatu behar duten berehalaz asmatzen dute.


Erreferente guztien agerpena, testuinguruko euskarria eta ikasgaiak jarraitzen dituzten elkarrekintza-sekuentziak, parte-hartze egitura zehatz baten ondorioa da. Parte-hartze egitura honi esker bigarren hizkuntzaz irakasten zaie ikasleek irakaslearen ekintzak eta ahozko mezuak interpretatzen dituzte testuinguru ulergarri baten barruan. Egoera honen errepresentazioa ezberdina da irakasleentzat edo ikasleentzat bainan negoziatio-prozesu baten ondorioz elkartrukaturiko errepresentazioa lortzen da. Egoera eta honexetan gertatzen diren ekintzak elkarren artean errepresentatzeak ikasleei ulertarazten zaie haiengandik espero dena nahiz eta ikasten ari diren hizkuntzaren forma linguistikoen ulerkuntza eskasa izan.

Irakasleak negoziatio-prozesuan elkarrekintza-moldaketak normalean martxan jartzen ditu, estrategia eta taktika barietate handi bat erabiliz. Irakaslearen interesaren arabera elkarrekintza moldaketak bigarren hizkuntzaren forma linguistikoiari ala mezuari zuzentzen zaizkio. Elkarrekintza-moldaketen egokitasunak, ikasleen erantzunekin batera, ikasgelako komunikazio-gradu handi edo txiki bat errez edo oztopa dezake, hots, arrakasta edo porrotora eraman dezake elkartrukaturiko esanahien eraikuntza.

Ikasle bakoitzak egoerari buruz duen errepresentazioa irakaslearenarekin konparatuz gero asimetrikoa eta ezberdina da, eta, neurri handi batetan, murriztua. Ikasgelan planteatzen diren egoerei aurre egiteko ikasleek hitzezko kodearen (ama-hizkuntza, bigarren hizkuntza edo tarteko hizkuntza) edota ezhitzezko (keinuak, ekintzak ....) lengoaiaren bitartez transmitituko zenbait estrategia erabiltzen dute. Egoera komunikatiboari buruzko partaideen errepresentazioak berbaldian tratatzen diren topiko edo gaien proposamen eta kontrolean islatzen dira. Errepresentazio hori elkartrukaturikoagoa izatera heltzen da ikasleek berbaldiaren gaiak proposatzen eta kontrolatzen dituzten heinean. Azken finean, ikasleak beren esperientzietan zentzua etengabeki ematen saiatzen ari dira esanahien eraikitzaile aktiboak baitira.

□ **Komunikazioa Euskarazko Murgiltze-Ikasgelan**

Orain arte bigarren hizkuntzaren eskurapenean elkarrekintzek eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuek duten garrantzia azpimarratu dugu. Baina horrek esan nahi du elkartruke guztiek partaideen arteko komunikazioa errezten dutela?. Galdera honi erantzun bat eman nahian euskarazko murgiltze-programa baten lehen urtean egindako ikerketa batera hurbiltzen gara. Ikerketa honetan irakasleen eta 3 urteko ikasleen arteko elkartrukeetan lortutako koherentzia-graduak analizatzen dira. Irakaslearen eta ikasleen arteko hiru koherentzia-gradu bereizten dira ikerketa honetan (kuadro I).





Elkartrukeak komunikatiboak kontsideratzen dira irakaslea eta ikaslea/k elkarrekin elkarrizketaren topiko edo gai bat elkartrukatzera edo konpartitzera iristen badira, hau da, esanahiaren ikuspuntutik bien arteko koherentzia ematen baldin bada. Elkartruke-mota hauetan ahozko edo ez-ahozko mezu baten bidez ikasleek ulertu dutela eta irakaslearen eskakizunetara egokitzen den esanahi bat emateko gauza direla erakusten dute. Ondoren aurkezten den elkartruke komunikatiboa euskarazko murgiltze-programaren hasierari dagokio. Irakasleak haurrei ipuin berri bat kontatu ondoren galderak egiten dizkie noraino ulertu duten ikusteko.

*Irakaslea: Eta txirristatik zer ateratzen zen?*

*(ormirudian keinu batez txirrista seinalatzen du)*

*Ion: Musika*

*Idoia: Musika*

*Irakaslea: Musika ateratzen zen*

Elkartruke honetan bi ikasleek alde batetik irakaslearen galdera ulertu dutela, eta bestetik erantzun egokia emateko gai direla erakusten dute. Beraz, elkartruke komunikatiboa edo esanguratsua dela esan dezakegu.

Beste elkartrukeetan irakaslearen eskakizunen aurrean ikasleek parte hartzeko gogoia edo nahia erakusten dute baina, alderantziz, ez dira gauza informazio koherentea edo egokia emateko. Elkartruke-mota hauek interaktiboak izendatu dira irakaslearen eta ikasleen mezuaren arteko koherentzia semantiko ezartzeko gauza ez bait dira. Hurrengoa elkartruke interaktibo baten adibidea da. Elkartruke honetan irakaslea semaforoaren koloreak eta kolore bakoitzaren esanahia lantzen ari da.

*Irakaslea: Eta berde dagoenean zer egiten dugu?*

*(keinu batez platera berde bat seinalatzen du)*

*(zalantzaszko keinua egiten du)*

*Maidier: Platera, platera*

*Irakaslea: Bai, platera berdea da*

*(platera jartzen du pintza berde baten ondoan)*

Ikasleak badaki zerbait erantzun behar duela eta horrela egiten du, baina erantzunarengatik irakaslearen galdera ez duela ulertu argiro ikusten da.

Azkenik, beste elkartrukeetan irakaslearekin topiko edo gai bat elkartrukatzeko ezintasuna erakusten dute ikasleek. Elkartruke hauek ezin dira ez komunikatibo ezta interaktibo bezala kontsideratu ikasleek mezurik ematen ez dutenean agertzen direlako. Ondorengo elkartrukean irakaslea eta ikasleak sukalde txokoan aurkitzen dira.

*Irakaslea: Unai! Edalontzi, emango al didazu edalontzia?*

*(ekartzeko keinua egiten du)*

*Eman edalontzia! (keinu batez edalontziaren itxura errepresentatzen du)*

*Unai: /ez du erantzunik ematen/*

*Irakaslea: Ez dago? Bai. Nik hartuko dut (armairutik edalontzi bat hartzen du)*

Elkartruke honetan agerian dago irakaslearen mezuaren ulertzeintasuna haurrak edalontziak aurrean dituelako. Kasu

Barrutia Ikastola. Gernika






Barrutia Ikastola. Gernika

honetan eta aurrekoan irakasleak plantetatutako topikoaren eta ikaslearen konportamenduaren artean haustura komunikatiboak agertzen dira. Haustura komunikatiboan aurrean irakasleak elkarrekintza-moldaketak erabiltzen ditu ikaslearekin komunikazioa ezarri ahal izateko. Irakasleak arrakasta komunikatibo gehiago lortzen du beste baliabide linguistikoak (esaterako, galderak edo aginduak aldatuz) edo ez-linguistikoak (egoeraren berantolakuntza bat planteatuz) erabiltzen dituenetan.

raz gaitasunik ez izan arren eta euskararen eta gaztelaniaren arteko urruntasun ikaragarriak ulerkuntza pasibo-gradu bat ere ez erreztu arren.

Elkartruke interaktiboak agertzen dira presentzia egonkor batekin bi denboraidietan (%7,45 hasieran eta %8,26 bukaeran) eta ikasleak parte hartzeko interesa isladatzen dute bere mezua irakaslearen mezuari semantikoki ez badagokio ere. Interakzioak komunikaziorako beharrezko urratsa suposatzen du koherentzia semantikoa ezar dadin nahitaez koherentzia estrukturala eman behar delako.

**Grafiko I:**  
Koherentzia-graduak irakasle/ikasle elkartrukeetan



Euskarazko murgiltze-programa baten lehen ikasturteko bi denboraldi ezberdinetan (ikasturtearen hasieran eta bukaeran) emandako irakaslearen eta ikasleen arteko elkartrukeen analititik (grafiko I) aipagarriena da elkartruke gehienetan komunikazioa ezartzen dela. Komunikazioa lortzen da eskolarizatzearen lehen momentuetatik (%74,18), ikasleek euska-

raz gaitasunik ez izan arren eta euskararen eta gaztelaniaren arteko urruntasun ikaragarriak ulerkuntza pasibo-gradu bat ere ez erreztu arren. Elkartruke interaktiboak agertzen dira presentzia egonkor batekin bi denboraidietan (%7,45 hasieran eta %8,26 bukaeran) eta ikasleak parte hartzeko interesa isladatzen dute bere mezua irakaslearen mezuari semantikoki ez badagokio ere. Interakzioak komunikaziorako beharrezko urratsa suposatzen du koherentzia semantikoa ezar dadin nahitaez koherentzia estrukturala eman behar delako.

Ondorio bezala, esan dezakegu elkartruke komunikatiboetan esanahiaren eraikuntza funtsean bi aspektuen menpe dagoela. Lehena, elkartrukea ematen ari den testuinguruari buruz partaideek (irakasleak eta ikasleek) duten elkartrukaturiko edo konpartitutako ulerkuntza. Eta bigarrena, gertatzen denari buruzko interpretazio arauak, partaideen ahozko jokabidea barne delarik. Modu honetan, arrakasta edo haustura komunikatiboari laguntzen dioten elementuak eta partaideek elkarri ulertzeko eta esanahia negoziatzeko erabiltzen dituzten pautak komunikatiboak aspekturik garrantzitsuenetariko bezala agertzen zaizkigu irakasleak eta ikasleek elkarrekin bigarren hizkuntzaz eraikitzen duten berbaldiaren analisisian.

# Irakasle-ikasleen arteko komunikazioa murgiltze ereduan.

## Irakaslearen estrategiak.

Francisca Zabaleta Zabaleta.



Barrutia Ikastola. Gernika

---

---

### **Eskola komunikazioaren osagaiak eta baldintzak.**

---

---

**Elkarrekintza komunikatiboa sustatzeko irakasleak egin beharreko egokitzapenak.**

---

---

**Komunikazioa eta bigarren hizkuntzaren erabilera sustatzeko irakaslearen estrategiak.**

### **I. ESKOLA KOMUNIKAZIOAREN OSAGIAK ETA BALDINTZAK.**

#### **1. KOMUNIKAZIOAREN HASIERA ESKOLAN.**

Komunikazioa gizarte ekintza konplexua da. Helburu anitz dituena. Hitzeginez edo hitzegin gabe lortzen dena. Egoera desberdinetan, edukin desberdinekin, partaide batekin edo askorekin, "feedback" prozesu baten bidez bilakatzen dena.

Hiru urteko haurrek eskolatzen direnerako ezagutzen dute pertsonen komunikazio tresnarik garrantzitsuena, hizkuntza. Eskolatu aurreko hiru urte horietan bide luzea egina dute komunikazio trebakuntzan: hitzegiten ikasi dute, badakite nahi dutena jakinarazten eta besteek esaten dutena ulertzen. Baina, nola ikasi dute hitzegiten? Galdera asko sortzen dira komunikazioa zer den azaltzerakoan. Bruner, Wertsch, eta beste ikertzaileek erakutsi duten bezala ama-umearen elkarrekintzan sortzen da komunikazioa.

Adibidez, jaio berriak negarrez hasten dira oinazea edo ez atsegina dutenean. Egoera bati emandako erantzuna besterik ez da negarra. Ez du komunikazio xederik edo helbururik.



Baina amak edo inguruan dagoen zaintzaileak, hasiera-hasieratik eransten dio xede bat, esanahi bat, haurraren negarrari. Negarra adierazle bat bezala interpretatzen du, oinaze edo atsegin ezaren zeinu bat bezala eta erantzuna ematen dio: umearen sehaska mugitu, umea aldatu eta titia eman, besoetan eduki e.a. Piskanaka-piskanaka umeak ikasten du negarra eginez lor dezakeela amak berak nahi duena egitea: besoetan hartu, janaria eman edo beste zerbait. Negarra amarekin komunikatzeko adierazle edo bitarteko bezala erabiltzen ikasi du. Amarekin edo zaintzailearekin komunikatzen ikasi du. Gero pertsona gehiagorekin eta tresna gehiago erabiliaz (keinuak, zeinuak, irudiak, hizkuntza) komunikatzen ikasiko du. Tresna horien artean hizkuntza da indartsuena.

Lehen haurtzaroan hizkuntzak ikasteko erraztasun berezia dute haurrek. Hiru urtetarako gehienek menperatzen dute ama-hizkuntza edo lehenengo hizkuntza. Eta familian bi hizkuntza erabiltzen badira, biak ikasten dituzte jatorrizko elebidunak bihurtzen direla.

Hiru urtetan ikastolara edo eskolara joaten hasten diren etapa berri bat hasten dute haurrek. Pertsonen bizitzan izugarrizko garrantzia duen etapa da. Familiaren babesetik at gizarte testuinguru berrira egokitzea eskatzen diena, ikasle "berdinen" taldera alde batetik eta irakaslearekin batera osatuko duten talde gidatura bestetik. Egokitzapena komunikazioaren bidez bakarrik lor dezakete. Eta beraiek bezalako ume askorekin eta irakaslearekin komunikatzen ikasi behar dute, komunikazioak dituen baldintzak kontuan hartuz.

## 2. ELKARRIZKETAK ETA ELKARREKINTZAK OSATZEN DUTE KOMUNIKAZIO PROZESUA.

Eskolan hasten den komunikazio prozesua aztertzen hasi aurretik komunikazioa bere osotasunean ulertu behar da. Komunikazio prozesua ongi zehazteko argiagoa litzateke elkarrekintza komunikatiboaz hitzegitea, elkarrekintzak eta elkarrizketak osatzen duten prozesua delako. Beste modu batera esanda, elkarrekintza komunikatiboan partaideen ekintzak artikulatzen dira hau da elkarrekin zerbait egiten dute, komunikazio tresnak (keinuak, irudiak, hizkuntza) darabilzkiten bitartean. Tresna horien artean hizkuntza da komunikazioarako indartsuena eta aberatsena.

Beraz, komunikazioa elkarrekintzan oinarritzen da. Pertsonen elkarrekintza prozesuak eraikitzen du komunikazioaren azpiegitura edo mapa (Zabaleta, 1994, 1995). Elkarrekintza maparen barruan komunikazio tresnak edo lengoaiak erabiltzen dira (gorputz lengoia, keinuak, irudiak, ahozko hizkuntza, e.a.). Komunikazioa bere konplexutasunean ulertzeko, bi maila desberdineko azpiprozesuez integraturiko prozesu orokorra dela kontuan hartu behar da. Ondorioz komunikazio hura edo elkarrekintza komunikatiboa aztertzerakoan, integratzen edo osatzen duten bi azpiprozesuak batera aztertuko dira: a) maila makrogenetikoan ematen den elkarrekintza, eta b) maila mikrogenetikoan ematen den elkarrizketa.

Komunikazioa aztertzerakoan partaideek egiten dutena eta esaten dutena batera aztertuko da elkarrizketa elkarrekintza txertatzen delako. Elkarren osagarri direlako. Gela barruko elkarrizketak aztertu aurretik elkarrekintzak aztertuko dira (Coll, Colomina, Onrubia & Rochema, 1992; Zabaleta, 1994,



Barrutia Ikastola. Gernika

1995), eta elkarrekintza mapetan kokatu elkarrizketak. Esaten dena egiten denarekin batera aztertuaz. Bi galdera dira batera erantzun beharrak: Zer egiten dute irakasle-ikasleek? Eta, bitarte horretan, nola hitzegiten dute? Adibidez, matematika ikasteko nolako iharduerak egiten dituzten eta nola hitzegiten duten iharduera horiek egiten ari direnean.

## 3. IRAKASLE-IKASLEEN ARTEKO ELKARREKINTZA KOMUNIKATIBOAREN BALDINTZAK.

Elkarrekintza komunikatiboa da hezkuntzaren oinarria. Hezkuntza prozesuak komunikazio prozesuak direlako neurri handi batean. Baina hezkuntzan mota askotako elkarrekintza komunikatiboak osatzen dira. Testuinguru eta partaide desberdinak baldintzatzen dituzten elkarrekintzak.

Partaideak kontuan hartzen badira bi motatako elkarrekintzak berezi daitezke, irakasle-ikasleen artekoak eta ikasle edo berdinen artekoak. Testuinguruetan oinarritzen bagara berriz, gela barruko elkarrekintza komunikatibo formalak edo gela barruan, jantokian, autobusean, jolastokian, e.a., osatzen diren elkarrekintza komunikatibo informalak aipatu daitezke. Gaia mugatzeko asmoz, Haur Hezkuntzan eta gela barruan irakasle-ikasleen artean osatzen diren elkarrekintza komunikatiboak aztertuko dira hemendik aurrerako orrialdeetan.



Haur Hezkuntzako eskola ihardueretan sortzen den komunikazioa edo elkarrekintza komunikatiboa etengabeko bilakera ematen den prozesu komunikatiboa da. Heldutasun maila desberdineko partaideen arteko elkarrekintza komunikatiboa, bertan irakaslea eta gaitasun desberdineko ikasleak aritzen baitira. Partaide hauek helburu desberdinak dituzte, irakasleak irakaskuntza lortu nahi duen bitartean ikasleen helburua ikaskuntza delako. Gizarte prozesu guztiak bezala baldintzatua dagoen prozesua da. Programa edo kurrikuloak baldintzatua, egutegi eta ordutegi batek baldintzatua, irakaslearen prestakuntzak eta espektatibak baldintzatua, ikasleen gaitasunak eta pertsonalitateak baldintzatua. Haur Hezkuntzak irauten dituen hiru ikasturteetan bilakatuko den komunikazio prozesu malgu eta konplexua da.

Irakasle-ikasleen arteko elkarrekintza komunikatiboa irakasleak gidatutako prozesu bat da. Irakasleak gidatzen ditu ikasleak ikaskuntza helburuak lortzeko behar dituzten laguntza psikopedagogikoak emanez. Baina ikasleak ere partaide aktiboak dira eta partaide guztiek osatzen dute gelako "feedback" prozesua. Talde osoak du protagonismoa.

Hala ere, gela barruko elkartruke komunikatiboen azterketak garbi isladatzen du irakaslea dela gelako aktore nagusia. Irakasleak gidatzen du prozesu orokorra eta bera da denbora gehienez komunikatzen eta hitzegiten aritzen dena. Irakaslea ikasle talde osoarekin, talde txiki batekin edo ikasle bakoitzarekin komunikatzen da eta gela barruko elkartruke komunikatibo gehienetako partaidea da. Ikasleek orotara, protagonismo nagusia dute ere, baina ezin da ahaztu harre-

man gehienak binaka osatzen direla. Irakasleak ikasle desberdinekin, banan-banan aukeratutakoekin, osatzen ditu elkartruke gehienak. Ondorioz ikasle bakoitzak komunikatzeko duen denbora mugatua dago eta txikiagoa da.

Muga horiek zehazterakoan edo ikasleek elkarrekintza komunikatiborako dituzten aukerak aztertzerakoan argi geratzen da faktore askok duten zerikusia: gelaren antolaketa, irakasleak hizketa txandak emateko modua, e.a. Oso faktore garrantzitsuak benetan ikasle bakoitzak aukera hauen arabera lortzen dituelako komunikazio gaitasunak.

Ikasgelako elkarrekintza komunikatiboaren kontrola da beste faktore garrantzitsu bat. Hasieran prozesuaren kontrola irakasleak daramala argi ikusten da. Komunikazioa lortzeko irakaslea ikasleei laguntza asko eskaintzen saiatzen da: egitura egonkorrak, iharduera errepikatuak, komunikazio tresna anitz (ez hitzezko lengoaia, keinuak, irudiak, materialak) e.a. Baina piskanaka, ikasleen autokontrol gaitasuna aurrera doan heinean, kontrola lagatzen joaten da ikasleen autokontrolari sarrera emanez eta hauen eskuetan uzten du beren kabuz egin dezaketen guztia.

## **II. ELKARREKINTZA KOMUNIKATIBOA SUSTATZEKO IRAKASLEAK EGIN BEHARREKO EGOKITZAPENAK.**

Murgiltze-ereduetan eskolaratzen diren haurrak komunikazio tresna aunitz erabiltzen dakitenak izaten dira. Euskal Herriko murgiltze ereduetan hasten diren ikasle gehienak gazteleraz hitzegiten dute baina harrera ematen dien irakasleak ez du gaztelerarik erabiliko gelan. Gelako hizkuntza oraindik ezagutzen ez duten euskara (H2) izanzen da.

Hizkuntzak erabiliaz ikasten dira. Zenbat eta gehiago erabili orduan eta aukera gehiago ikasteko. Zenbat eta erabilera funtzionalagoa bideratu, orduan eta gehiago errazten da ikaskuntza. Ildo honetatik edo bigarren hizkuntzak irakasteko sortu dira murgiltze-ereduak. Eredu hauetan ikasi behar den bigarren hizkuntza da eskolan erabiltzen dena. Eskolan erabiliaz ikasiko dute ikasleek bigarren hizkuntza.

Murgiltze-eredu desberdinak daudenez, hurrengo orrialdeetan, erabateko murgiltze eredu goiztiarrez ariko gara soilik. Hiru urteko haur elebkarrei bigarren hizkuntza (H2) irakasteko ezartzen dena. Hasieratik irakasleak bigarren hizkuntza bakarrik erabiliko du ikasleekin hitzegiterakoan. Ikasleek, lehenengo hilabeteetan, lehenengo hizkuntza (H1) erabiltzen dute baina, piskanaka, hasten dira bigarren hizkuntzan hitzegiten, lehenengo irakaslearekin eta gero elkarren artean.

Murgiltze-eredu goiztiarra eredu aberasgarria da. Eredu elebkarrek lortzen dituzten hezkuntza helburuez gain bigarren hizkuntzaren irakaskuntzan ondorio zabalenak lortzen dituelako. Hori frogatu da egoera minorizatua jasaten duten hizkuntz askoren irakaskuntzan eta beraien artean euskararen irakaskuntzan (E.I.F.E, 1986, 1989, 1990, Zabaleta, 1986). Baina murgiltze-ereduen barruan gertatzen dena ulertzen saiatzea da gure helburua eta horretarako hurrengo galderak egin behar dira: Nola hasten dira hiru urteko ikasleak irakaslearekin komunikatzen? Nola burutzen dituzte edukin desberdinetako iharduerak? Nolako estrategiak erabiltzen ditu ira-



kasleak komunikazioa eta bigarren hizkuntzaren erabilera batera sustatzeko?

Argia da dagoeneko murgiltze-ereduetako eta eredu elebakarretako helburuak ez direla berdinak eta beraietako irakasleen lanek ere desberdintasunak izango dituztela. Murgiltze-ereduetako irakasleak, beraien ikasleei bigarren hizkuntza ikasten laguntzeko estrategia psikopedagogiko bereziak hartzera behartuak daude. Berezitasun horiek nabarmenagoak izango dira Haur Hezkuntzaren hasieran eta desagertzen joango dira ikasleek bigarren hizkuntza ikasten duten heinean. Hurrengo orrialdeetan murgiltze-ereduetako irakasleek erabiltzen dituzten egokitzapen edo estrategia garrantzitsuenak aztertuko dira.

### 1. GELAKO ANTOLAKETAREN EGOKITZAPENA.

Murgiltze eredu aunitzetan irakaslea da bigarren hizkuntzaren "input-a" emango duen iturri bakarra. Egoera horretan, ikasle taldeak bigarren hizkuntza entzuteko eta erabiltzeko dituen aukerak handitu behar dira eta horretarako denborarik gehiena irakaslearekin batera aritu behar du lanean. Horrek talde handiaren antolaketa eskatzen du, onuragarriago delako murgiltze-ereduko komunikazioa bigarren hizkuntzan eraikitzen hasteko. Irakasle trebeek askotan erabiltzen duten antolaketa mota da, bai elkarrekintzak burutzeko eta, baita, horien ondorioz sortzen diren banakako lanak prestatzeko ere. Honela bada, talde handiaren antolaketa eta ondorioz sortzen den banakako lanak lirakeke egokienak murgiltze ereduaren hasieran.

Antolaketa horren iraupenari dagokionez ikasleen lehen hizkuntza ere kontuan hartu behar da. Ikasleak ama-hizkuntza berdinekoak direnean hizkuntza hori erabiltzen hasten dira beraien artean. Ondorioz "txokoak" edo ikasle talde txikiak sortzea ez da komenigarria ikasleek beraien artean bigarren hizkuntzan hitzegiten hasten diren bitartean.

Baina azpimarratu behar da talde txikian irakaslearekin batera lan egiteak duen garrantzia. Ikasle bakoitzari laguntza pertsonalizatua ematea ahalbideratzen diolako irakasleari. Baina lan antolaketa honek murgiltze-ereduetan irakasle laguntzaileak izatea eskatzen du. Irakasle horiek dauden kasuetan Haur Hezkuntzako antolaketarik egokiena gelaz kanpoko lauzpabosteko ikasle taldeen errotazioa da. Horrela irakasleak gelako lana jarraitzen duen bitartean, irakasle laguntzaileak talde txikiarekin lan egin dezake ikasle bakoitzari laguntza indibidualizatua emanez.

### 2. PROGRAMAZIOAREN EGOKITZAPENA.

Haur Hezkuntzako lehenengo ikasturtean programazio osoa egokitu behar da murgiltze ereduaren egoera komunikatibo berezira. Lehenengo hilabeteetako helburu nagusia bigarren hizkuntzaz baliatuko den komunikazioa eraikitzen hastea da eta horretarako murgiltze-ereduak duen helburu bikoitza kontuan hartu behar da: a) Hezkuntzako elkarrekintza komunikatiboa eraiki eta, b) Bigarren hizkuntza ikasi eskolan erabiliaz edo eskolako hizkuntza bihurtuaz. Aipaturiko helburu bikoitzak programazioaren egokitzapenak eskatzen ditu, bai edukinen aldetik eta baita ihardueren aldetik



Barrutia Ikastola. Gernika

ere.

Edukinei dagokienean ikasleen hizkuntz gaitasuna izanzen da kontuan eta ama-umeak elkarrekiko komunikazioa hasten duten moduan bideratuko da irakasle-ikasleena. Eguneroko elkarrekintzetan hasiko dira komunikatzen (arropa zintzilikatu, gauzak gorde, eserlekuetan jarri, jolastu, elkarlanean hasi, e.a.). Gelan manipulatu daitezkeen materialetaz, egin daitezkeen ekintzetaz eta sortzen diren gertakizunetaz hitzegingo dute. Bertako ingurunean edo "hemen eta orain" gertatzen diren ihardueretaz, bertan dauden pertsona eta gauzetaz hitzegingo dute. Beste modu batera esanda, hasieran erreferentzia pragmatikoaren perspektiba erabiliko dute eta bertako ingurunean kokaturiko iharduerak behin eta berriro errepikatuko dira.

Lehen hilabeteetako helburu nagusia bigarren hizkuntza erabiliaz elkar ulertzen hastea denez, hasierako edukinak erritmo motelagoan sartuko dira murgiltze-ereduetako programazioan. Laburbilduz, edukina egokitzeko proposaketak (Zabaleta, 1994) hurrengoak lirakeke:

- a) Garrantzi berezia emango zaio "Agurra" saioari, benetako balioa duelako ikasgelan hizkuntza modu naturalean irakasteko.
- b) Hizkuntza irakasteko helburua duten edukinetan (ipuina, hizkuntz jokoak), Haur Hezkuntzako hiru ikasturteetan egokitzapenak egingo dira.
- b) Beste edukinetan (matematika, gizartea, irakurmen- idazmena e. a.) lehenengo ikasturtean egokitzapenak egiteak komenigarria dirudi, gero eredu elebakarretako programazioekin berdintzen joateko.



### **III. KOMUNIKAZIOA ETA BIGARREN HIZKUNTZAREN ERABILERA SUSTATZEKO IRAKASLEAREN ESTRATEGIAK.**

Murgiltze-ereduko irakaslea, irakasle guztien modura, bere ikasleekin komunikazioa eraikitzen saiatzen da hasiera-hasieratik. Baina eredu elebakarretako komunikazioa denek ezagutzen duten hizkuntzan eraikitzen den bitartean, murgiltze-ereduetako komunikazioaren tresna nagusia ikasleek ikasi behar duten bigarren hizkuntza da. Beraz, murgiltze-ereduko irakasleak komunikazioa eta bigarren hizkuntzaren erabilera batera sustatu behar ditu.

Helburu bereziek neurri psikopedagogiko bereziak eskatzen dituzte. Aurreko orrialdeetan gelako antolaketan eta programazioan egin beharreko egokitzapenak aztertu ondoren, hurrengoetan komunazioa eta bigarren hizkuntzaren erabilera batera sustatzeko erabili beharreko estrategia bereziak aztertuko dira.

#### **1. IRAKASLEAREN ESTRATEGIAK KOMUNIKAZIOA SUSTATZEKO.**

Lehenengo hizkuntza familian ikasten da. Ama-umearen arteko elkarrekintzan oinarritzen den ikaskuntza da. Bigarren hizkuntza, murgiltze eredu goiztiarrean ikasten denean, eskolan ikasten da. Irakasle-ikasleen arteko elkarrekintzan oinarritzen den ikaskuntza da. Irakasleak bai ikasle talde osoare-

kin eta, baita, ikasle bakoitzarekin osatzen duen elkarrekintzan oinarritua.

Eskolako elkarrekintza komunikatiboak berdintasunak eta desberdintasunak ditu familiaren barruan sortzen denarekin. Amek eta irakasleek, komunikazioa ziurtatzeko eta hizkuntza berri bat irakasteko erabiltzen dituzten estrategia aunitz berdinak dira. Eta berdintasun horiek handiagoak dira murgiltze ereduetan eredu elebakarretan baino. Besteak beste, murgiltze eredueta irakasleek, amen antzera, hizkuntza berri bat irakasten dutelako. Hurrengo lerroetan murgiltze-ereduetako irakasleek erabiltzen dituzten estrategia nagusietaz arituko gara.

##### *1.1. Ikasleen lehenengo hizkuntzaren erabileraren onartze baldintzatua.*

Murgiltze eredueta irakasleak elebidunak dira eta hasieran komunikazioa sustatzeko onartzen dute ikasleek gelan ama-hizkuntza erabiltzea. Ondorioz, hasierako elkarrizketetan bi hizkuntz entzuten dira gelan: irakasleak erabiltzen duen bigarren hizkuntza (H2) eta ikasleek erabiltzen duten lehen hizkuntza (H1). Baina onartze baldintzatua da. Onartze baldintzatu hori estrategia baliagarria da komunikazioa sustatzeko. Estrategia horren bidez ikasleekiko komunikazioa errazten delako bigarren hizkuntzaren ikaskuntza hasten den bitartean.

Baina aipatu den bezala H1en onartzea baldintzatua da. Irakasleak H1en erabilera onartzen duenean ere argi uzten du H2 dela eskolako hizkuntza. Horretarako, gero ikusiko dugun bezala, irakasleak H1en eta H2ren onartze diskriminatiboak egiten ditu. H1ren erabilera onartzen da komunikazioa sustatzeko beharrezkoa den bitartean eta inolako errefortzurik gabe. Baina H2ren erabilera, gero ikusiko ditugun estrategien bidez, indartzen du gelako hizkuntza dela adieraziaz.

##### *1.2. Erreferentzia pragmatikoa.*

Perspektiba erreferentzialari buruz Wertsch-ek ekarpen garrantzitsuak egin ditu Vygotsky-ren azterketa semiotikoa abiapuntutzat hartu ondoren.

Erreferentzia pragmatikoa da bestearen arreta objektu edo iharduera espezifikoko baterantz bideratzeko solaskideek erabiltzen duten mekanismoa. Erreferentzia pragmatikoaren bidez elkarrekintza eta elkarrizketaren esanahia bertako testuinguruan kokatzen da. Wertsch-ek ongi aztertu duen bezala, erreferentzia sinpleena begirada eta keinuen bidez eta gero erakusleen bidez (hau, hori) egiten dena da. Adibidez, irakasleak ikasleari, besoko keinuaz edo erakusleak erabiliaz bere eserlekua zein den adierazten dionean erabiltzen dena.

Laburbilduz, esan genezake erreferentzia pragmatikoa erabiltzen dela “hemen eta orain” dauden pertsona edo gauzetaz, eta bertan egiten diren ihardueretaz hitzegiten denean. Murgiltze ereduaren hasieran eta komunikazioa errazteko, nahitaezkoa da erreferentzia hau erabiltzea bertako testuinguru extralinguistikoa kokatuaz elkarrizketaren esanahia. Adibidez, ikasgelako eta ikasleen gauzetaz, beraien izen, arropa eta ezaugarrietaz, egiten dituzten jolas eta ekintzetaz e.a. hitzeginez.

### 1.3. Gizarte erreferentzia.

Coll & Onrubia (1992) eta Zabaletaren (1994, 1995) ustez garrantzi handiko estrategia da bigarren hau ere eskola diskurtsoan. Gizarte erreferentziaren osagaiak dira eskolako edukinekin zerikusi zuzenik ez duten gizarte esperientzia edo ezagutzak. Adibidez, ikasleen familietaz, auzoko edo eskolako jaietaz eta gertakizunetaz, eskolako jantokiko edo autobusetako gertakizunetaz eta abar hitzegiten denean gelan. Irakasleak, ikasleen ingurune soziala eta beraien ezagutzak eta esperientziak ezagutzen baditu, elkarrekiko komunikazioa sustatu lezake gelan gauza horietaz hitzeginez.

Gizarte erreferentziako perspektiba maiz erabiltzea baliagarria da murgiltze eruedetan. Horrela errazago ulertzen dutelako ikasleek bigarren hizkuntzan azaltzen zaiena. Edukina ezaguna baitute. Adibidez, irakasleak ikasleen familietako berriak edo eskolako gertakizunak gelan aipatzen dituenen gai horiek, ezagunak direnez, errazago ulertzen dituzte ikasleek.


Gizarte edukin horiek askotan eta modu naturalean azaltzen dira Haur Hezkuntzan: umeak daramaten arropa berria, urtebeteak, familietako lanbideak, adinak, eskolako jaiak, e.a.. Ezagunak diren gai horiek elkarrekiko komunikazioa sustatzeko duten baolioarengatik zabaltasunez erabili behar ditu irakasleak.

Programazioetatik hitzegiterakoan aipatu dugu Haur Hezkuntzan badela neurri handi batean gizarte erreferentziak osatzen duen saioa: eskola egunari hasiera emateko "Agurra". Saio honen benetako balioa gizarte erreferentziaren perspektiba zabaltasunez erabiltzean datza. Baina perspektiba hori ezin da Agurra saiora mugatu eta murgiltze eruedetako irakasle trebeek perspektiba horiek, edozein gaiaren barruan txertatzen direnean, jarraipena ematen diete eta, bukatu ondoren, lehengo edukinera itzultzen dira. Horrela, bapatean sortzen diren edukin sozialetaz hitzeginez, elkarrizketa espontaneoak edo naturalak sortzen direlako gelan eta ikasleen arreta hobeki mantentzen delako.

### 1.4 Edukinekiko erreferentzia espezifikoaren negoziaketa.

Coll & Onrubia-k (1992) definitzen dute, programazioko edukinekin erlasionaturiko ezagutzak osatzen dutela esanez. Eskolan irakatsi eta ikasi behar diren ezagutzak dira. Ezagutza hauen inguruan osatzen da irakasle eta ikasleen eskola eguna.

Gelan ezagutza berri bat azaltzen denean aurrekoak ezagutzen direneko hipotesi implizitoa izaten da. Baina askotan gaizkiulertuak sortzen dira eta irakasleak ikasleekin esanahi bateratua berriro negoziatu behar du. Horretarako hasierakoa baina maila baxuagotik hasi behar du egokitzapena eginez. Adibidez, gure ikerketan (Zabaleta, 1994, 1995) irakasleak ikusten bazuen ikasleek ezin zutela ipuina buruz ikasi (Haurtxoa programazioak zekarren helburuetako bat) maila baxuagoko helburuak jartzen zizkien (ipuinen laminek deskribaketa, e.a.), honela elkarrekiko komunikazioa bermatuz. Negoziaketa irakasle guztien egin-beharra da, baina murgiltze eruedetan garrantzi berezia du komunikazioa sustatzeko.



Barrutia Ikastola. Gernika

### 1.5. Lengoaia aunitzen erabilera.

Lengoaia asko (ez-hitzezkoa, keinuak, irudiak, hizkuntza, e.a) batera erabiltzeko estrategia ere oso baliagarria da murgiltze erueduko komunikazioa sustatzeko. Batez ere Haur Hezkuntzan.

Lengoaia asko batera erabiltzeak bigarren hizkuntzaren esanahia ulertzen laguntzen du ikasgelan. Beste lengoaiak hizkuntzaren euskarri bihurtzen direlako. Ikerketek behin eta berriro frogatu dute euskarri hauen erabileran trebeak diren irakasleek gelako komunikazioa hobeki bermatzen dutela.

#### 3.1.6. Ikasleen hizketa txanda egonkorak eta orekatuak.

Ikasleen hizketa txandak garrantzitsuak dira hizkuntzak erabiliaz ikasten direlako eta txandek erabilera hori ahalbidetzen dutelako. Ikasgelan, denbora gehienean irakasleak aritzen dira hitzegiten. Ikasleek hitzegin lezakete hark txanda ematen dienean baina, asko direnez, denbora gutxiago gertzen zaio bakoitzari.

Murgiltze eruedetan estrategia garrantzitsua da hizketa txandak modu orekatuan ematea. Ikasleen beharren arabera orekatuak. Ikasle gehienek hitzegiteko aukera berdinaraz izango dituztela bermatzen dutenak. Hori lortzeko neurri asko erabili litezke baina estrategia esplizitoak izatea komenigarria da. Horrela bakarrik bermatu litekeelako ikasle aurreratuenek edo irekienek txanda gehienak ez dituztela agortuko.





## 2. IRAKASLEAREN ESTRATEGIAK BIGARREN HIZKUNTZAREN ERABILERA SUSTATZEKO.

Murgiltze ereduaren kalitatea “input” ulergarriaren erabileran, jarrera eta motibazio baikorretan eta solaskideek, elkarrekiko jarrera eta elkarrizketaren artikulazioaren bidez eraikitzen dituzten esanahietan datza. Murgiltze ereduaren H2 erabiltzen da irakaskuntzaren helburu eta bitarteko bezala.

Horretarako irakasleek argi izan behar dute nola adierazi ikasleei euskara (H2) dela gelako hizkuntza. Nola eraiki hasieran erabiltzen duten gaztelania (H1) eta piskanaka ordezkatzeko dion euskararen arteko (H2) zubia. Eta estrategia egokiak erabili behar ditu.

### 2.1. Ikasleen gaztelerazko (H1) erantzunak hornitzea edo osatzea euskaraz (H2).

Murgiltze ereduaren hasieran maiz erabiltzen den estrategia da hau ere. Ikaslearen erantzuna gazteleraz (H1) eta esanahiaren aldetik osagabea bada irakasleak, estrategia honen bidez, erantzuna errepikatzen du, euskaraz (H2) eta adierazpena osatuz. Horrela erantzun eredu eskaintzen dio eta, aldi berean, euskara dela gelako hizkuntza adierazten dio.

### 2.2. Ikasleen gaztelerazko (H1) erantzun zuzenen errepikapena euskaraz (H2).

Irakasleek erabiltzen dute estrategia hau ikasleen gaztelerazko erantzunak irakaskuntzaren edukiari begira zuzenak direnean. Horretarako, irakasleak ikaslearen aurreko adierazpena, osoa edo zati bat, euskaraz (H2) errepikatzen du.

Murgiltze ereduaren hasieran gehien erabiltzen den estrategia honen bidez irakasleak, alde batetik, onartzen du ikasleak

gazteleraz (H1) eman duen erantzuna, baina, beste aldetik, irakasten dio nola esan daitekeen hori bera euskaraz eta hau dela gelako hizkuntza.

### 2.3. Gaztelerazko (H2) erantzunen “feedback” eza.

Hasieran irakasleak gazteleraz (H1) emandako erantzunak modu baldintzatuan onartzen ditu eta, edukiari dagokionez zuzenak direnean, elkartrukearekin jarraitzen du. Baina onartze baldintzatua da, eta hori isladatzen da gazteleraz jasotako erantzunak, euskaraz emandakoarekin gertatzen ez den bezala, ez dutelako inolako errefortzu positiborik jasotzen (“oso ongi”, e.a.).

Estrategia honekin irakasleak bermatzen du komunikazioa eta, aldi berean, erantzunak gazteleraz (H1) ematen segitzeko asmoa ahultzen dio ikasleari.

### 2.4. Mezuan zentratzea kodigoan baino gehiago.

Estrategia honen bidez irakaslea erantzunen mezuan zentratzen da kodigoan baino gehiago. Horrela, gehienetan kodigoaren zuzenketa zuzenak alde batera utziz, elkartruke komunikatiboak jarraitzen ditu ikasleek emandako erantzunak, kodigo akatsak izan arren, mezuari buruz zuzena direnean.

Horrek ez du esan nahi irakaslea ez dela H2ren kodigoa irakastez arduratzen. Laburbilduz, esan daiteke kodigo errakuntzen aurrean irakasleak helburu bikoitza duela. Ikaslearen erantzunaren mezua zuzena denean, kodigo akatsak izan arren, irakasleak onartzen du baina denbora berean saitzen da “feedback” moduan erantzunaren eredu zuzena eskaintzen. Gure ikerketak isladatu duen bezala (Zabaleta, 1994, 1995) kodearen agerizko zuzenketa gutxi egiten dira eta, agertzekotan, hizkuntza irakasteko saioetan (ipuiak, hizkuntz jokoak) ikus daitezke.

### 2.5. Kodearen argitze kontrola.

Ikasleak gazteleraz (H1) egindako adierazpena euskaraz (H2) errepikarazteko erabiltzen den estrategia da. Modu desberdinak erabiltzen dituzte irakasleak. Adibidez, entzun ez balute bezala “zer?” galdetuz edo gaztelerazko erantzuna erakarri duen galdera berriro errepikatuz. Bi “seinale” horien bidez, ikasleari erantzuna euskaraz emateko aukera ematen dio berriro.

Estrategia honek gero eta maiztasun handiagoa lortzen du murgiltze ereduaren ikaslearen euskararekiko gaitasuna aurrera doan heinean.

### 2.6. Iruzkin metalinguistikoak.

Azkenik aipatuko dugun estrategia hau erabiltzen da ikasleek gazteleraz (H1) eta edukiari begira zuzenak diren erantzunak ematen dituztenean. Irakaslearen “feedback-a” kasu honetan ez da mezuan zentratzen kodean baino eta honi buruzko azalpena egiten du: “euskaraz hitzegin behar da ikastolan, e.a.”

Beraz, estrategia hau kodean zentratuakoa eta zuzena da. Ez da hasieran erabiltzen denetakoa eta aurrerantzean ere gutxi, komunikazioa sustatzeko onuragarriagoak direlako zeharkako estrategiak.

# Murgilketarako irakaslearen eginkizuna Komunikazio-elkarrekintzetan

Iñaki Biain Salaberria

*Euskara Teknikaria.*

*Nafarroako Gobernuko Hezkuntza  
Departamentuko Euskara Zerbitzua*

**Artikulu honetan murgilketa programa baten bidez bigarren hizkuntza bat ikasten ari den haurrari laguntzeko, irakasleak gela barneko komunikazio-elkarrekintzetan erabili ahal dituen estrategiak aztertuko ditugu.**

**Artikulua hiru ataletan banatuta dago. Lehenengoan, gaiaren ikuspegi orokorra ematen da. Hurrengoetan, gaiaren bi alderdi nagusiak aztertzen dira: irakaslearen eginkizuna eredu eta zuzentzaile gisa, bigarreanean, eta solaskide eta dinamizatzaile gisa, hirugarrenean.**



**I.- IRAKASLEAREN EGINKIZUNAK KOMUNIKAZIO-ELKARREKINTZETAN:**

Murgilketa programetako irakasleok gelako elkarrerkintza komunikatiboan bi eginkizun nagusi betetzen ditugu: solaskide/dinamizatzailearena eta eredu/zuzentzailearena

a) haurren SOLASKIDE eta DINAMIZATZAILE gisa horrela jokatuko dugu:

- haurrekin gaia konpartitu (gaia haurrengandik hurbil egon dadin zainduz)
- haurren komunikazio-ekimenak eta saiakerak jaso (aintzat hartu, aditu eta erantzun)
- haurrek ekoizten dutena ulertzen ahalegindu

Baina irakasle garen aldetik, ez gara solaskide arruntak IRAKASTEKO ASMOA dugunak baizik, ondorioz, halako eginkizunak ere burutuko ditugu:

- haurren osatu gabeko mezuak interpretatu eta osatzen lagundu
- ahozko elkar-trukaketetan sar daitezen estimulat

DINAMIZADORE gisa honako hauek ere egingo ditugu:

- haurren arteko interakzioa eta komunikazioa eragin
- haien komunikazio-elkartrukaketak orientatu

Adibideak:

“Galdetu Andoniri ea ...?”

“Esan Mainerri ..... azal diezazula”

“Telefonoz deitu ...-ri eta esaiozu ...”

“Leire, orain guztiok gaude, kontatu goizean kontatu didazu-na”

b) HIZKUNTZ EREDU ETA ZUZENTZAILE gisa gure eskuhartzea ez da metalinguistika mailan kokatuko (hots, ez diegu haien ekoizpenez eta huts egiteez ohartaraziko), komunikazio ekintzan baizik.

Horretarako, EREDUA emateko:

I.- Geure hizkuntza EGOKITUKO dugu, baina desitxuratu edo pobretu gabe,

- arreta lortzeko
- ulertarazteko
- asimilazioa errazteko ulertua izateko erregistro egokia erabiliz; hau da, ulermena eta asimilazioa errazteko sintaxia behar-beharrezko mailan sinplifikatuz.

Beraz, gure hizkuntz egikera zaindu behar dugu:

- Adierazpenak hobetu, ulergarriagoak izan daitezten
- Esaldi luzeegiak edo subordinatu asko egin gabe
- Hitzak ondo ebaki eta, intentzioaren arabera, intonazioa markatu
- Beharrezkoa denean, enuntziatu bera naturaltasunez errepikatu, hobeto uler dezaten.
- Enuntziatu egonkorrak erabili; hizkuntz baliabide berriak sartzean, hizkuntz testuinguru ezagunetan kokatu (ulermena errazteko) eta, geroago, testuinguru ezberdinetan erabili (haien esanahi zehatzaz jabe daitezten).

Bestalde, ZUZENTZERA KOAN hizkuntz formari baino edukia-ri edo esanahiari begiratuko diogu, hots, zuzenketaren bidez mezuak ulergarriago bihurtzea eta adierazpide osatzea bilatuko dugu).

- okerren bat duten enuntziatuak, euskaraz eta galderak eginez errepikatu. Ad.
  - Txano bat enkontratu dut
  - Txano bat aurkitu al duzu ?
- enuntziatuak onetsi eta luzatu/zabald.
  - ea zer jarri dizun amak gosaltzeko?
  - bokata bat
  - ah bai! urdaiazpiko eta gaztazko ogitartekoa! Gozoa dirudi, ez?
- Galderen bidez enuntziatuak osatzen eta zabaltzen (hasieran galdera itxiak izan arren, gero eta irekiagoak izango dira) lagundu. Irakasleak xehetasun gehiago ezagutu nahi balu bezala jokatuko du, edota haurrak aipatu duena une horretan gogoratuko ez bailuen.
  - Honek ez dit uzten
  - Nork ez dizu uzten, Andreak edo Anek?
  - Andreak ez dit uzten
  - eta zer da Andreak uzten ez dizuna ?

Jokabide hauek haurrari euskaraz hitz egiten -progresiboki- laguntzen diote, eta hortaz H2-an komunikatu ahal izateko gaitzen joango da.

Jarraian, irakasleak eredu eta zuzentzaile gisa bete ditzakeen eginkizunak zehaztasunez aztertuko ditugu.

**II.- EREDUA EMATEKO ETA ZUZENTZEKO ESTRATEGIAK**

Irakaskuntza/ikaskuntza prozesu guztietan, ikaslearengan eragin handia duten eginkizun ezberdinak garatzen ditu irakasleak. Hizkuntzaren irakaskuntzari dagokionez, hizkuntz eredu eta zuzentzaile izatearena hartu izan ohi da eginkizun garrantzitsuenetakotzat. Are garrantzitsuago murgilketa programetan, non irakaslea bera baita ikaslearen hizkuntzaren ezagupena aberasteko tenorean dagoen solaskiderik inportanteena eta, sarritan, ia bakarra.

Eredua eman eta zuzentzeko, irakasleak egikera ezberdinak burutu ditzake. Hona hemen behinenak:

**II.A.- ZEHARKAKO EREDUAK:**


(ulermena eta adierazpena laguntzeko)

Egikera hauetako batzuk zeharka eragiten dute, batik bat H2-arekin ematen diren lehenabiziko urratsetan, hots, ikasleak, oraindik, hizkuntza horretan hitz egiten ez duenean edota era oso mugatu batean egiten duenean. Egikera hauen helburua da, ikasleari, adierazle eta adieraziaren arteko erlazioa ezartzen laguntzea, helduak igorritako ahozko mezuen eta une horretan burutzen ari diren ekintzen arteko lotura ikusaraziz. Zeharkako baliabide hauen artean hurrengo bi hauek aipa ditzakegu: autosolasa eta mintzaira paraleloa.

Autosolasean, irakasleak, ozenki, egiten ari dena kontatzen du, bere asmoak, ideiak etab., ikasleei adierazten dizkie, inori zehatz-mehatz zuzendu gabe, hizkuntz funtzio edo forma batzuk plazaratzeko asmoz.

Mintzaira paraleloan, irakasleak ikasleren bat egiten ari dena edo, ustez, egingo duena kontatu edo deskribatzen du.

Beraz, antzeko bi estrategia dira, funtsean; bata, irakasleak egiten duena adieraztean datza; besteak, aldiz, ikaslearen iharduera hartzen du aipagarritzat.



Barrutia Ikastola. Gernika

Baliabide edo egikera hauek egokiak dira lehenbiziko mailetan edota ikasle batzuk gaitasun-maila eskasa azaltzen dutenean erabilteko. Hala eta guztiz ere, geroagoko mailetan ere erabil litezke, ikasleak oraindik ezagutzen ez dituen hizkuntz erabilerekin harremanetan jarri nahi dugunean, hain zuzen.

## II.B- ZUZENEKO EGIKERAK

Ikasleen hizkuntz gaitasunen bat espreski garatzeko, baditugu bideratuagoak diren egikerak. Hauek, irakasleak ikasleari ematen dizkion laguntza-sistemak dira; batzuetan ulermena eta, besteetan, ahozko adierazpena errazteko. Laguntza hauen bitartez, ikasleek hobeki egokitzen diote beren ahozko ekoizpena komunikazio-egoerari, edo ekoizpenen zuzentasun formalak hobetzen dute.

### ULERMENA ERRAZTEKO

Mezuen kontestualizazio argia da ikaslearen ulermena erraztu eta garatzeko biderik ohikoena. Horretarako mezuak irudi, ekintza, keinu edota doinu adierazgarriez lagundu ohi ditugu.

Ikasleen ezaugarrien arabera, laguntza-maila ezberdinak eman dira. Adibidez: izendapenak edo deskribapenak egin, alternatibarik gabe edo bizpahiru alternatiba emanez; aginteak etab. keinu eta doinuaren laguntzaz edo laguntzarik gabe eman; mezuak testuinguru oso mugatu edo zabalagoetan kokatu,...

Lehendabiziko mailetan, zeinetan ikasleek oraindik H2-an ez dakiten hitz egiten, irakaslearen mintzairan egokitze batzuk egitea

komenigarria da oso: erritmo geldoago, intonazio eta mimika adierazkorragoak edota ahozko intentsitatea altuago erabiliz, aipatzen den testuinguru fisikoan -seinalatu, ilustrazioak erakutsi- gehiago oinarrituz; enuntziatuak sarriago errepikatu eta estabilizatuz...

### ULERMENA eta ADIERAZPENA LAGUNTZEKO

Aldi berean, ulermena zein adierazpena lantzeko egikera egokiak dira gero eta irekiagoak diren galderen formulazioa, gero eta zailtasun gehiagoko erantzuna eskatzen duten galderak, alegia: hasieran erantzuntzat "bai" edo "ez" eskatzen dutenak, gero alternatiba bat -zein nahi duzu zuria ala gorria? - eskaintzen diotenak eta, azkenik, erantzunaren elaborazioa (laburra bada ere) eskatzen dutenak.

### ADIERAZPENA ERRAZTEKO:

Adierazpena lantzeko, normalean, ikasleekin burututako solasaldi edo elkarrizketa-egoeretan sortuko diren egikera ezberdinak erabil ditzakegu.

Hauetako batzuek ikaslearen komunikazio-saiakerak erraztea edota adierazpen-zailtasunak gutxitzea dute helburutzat. Besteak, aldiz, mugatuak edo ez-zuzenak diren enuntziatuak zuzentzerako edo zabaltzerako bideraturik daude, eta muga edo ez-zuzentasun hauek enuntziatuen ulermena oztopatu eta komunikazioa moztu dezaketen neurrian erabiliko ditugu.



## 1.- ERANTZUTEN LAGUNTZEKO:

Ikasleak H2-a erabili bai, baina, ordurarte gutxi landutako funtzio batzuk betetzeko edo enuntziatio-egoeraren zenbait parametrori berbaldia egokitzeko, noizik behineko zailtasunak dituenen, Juarez eta Monfort-ek errazte-sistemak deitutakoak erabiltzea beharrezkoa izan daiteke.

Jarraian, errazte-sistema hauek azaltzen ditugu, gero eta direktibitate txikiagoaren arabera mailakaturik. Direktibitate handiago dutenak, ikasleak H2-an hizkuntz gaitasun oso mugatua duenean bakarrik erabili behar dira, hortaz, betiere, aukera guztien artean direktibitate gutxiago duena erabiltzen ahaleginduko gara.

- Modelatzea: laguntza hau oso esplizitua da; egoeraren berritasuna dela eta, ikaslea trabaturik edo blokeaturik geratzen denean eman dakioken laguntza, hain zuzen. Honetan, irakasleak eredu posible bat ematen dio ikasleari eta errepikatzen laguntzen dio.

- Ea zein nahi duzun, gorria?, Benga, esan...

- go rri a (irakasleak ikaslearekin batera esaten duelarik)

- Indukzioa: Ikasleak ulermen-maila egokia eta erabili nahi duen hitza nola erraten den gogoratzen ez duenean erabil daitekeen laguntza da. Ikaslea egoera honetan ikusten dugunean, hitzaren lehendabiziko edota bi lehenengo silabak erran diezazkiokegu oroipena edo ebokazioa errazteko.

- Zer behar duzu ?

- eh ..., (idaztearen keinua egiten du)

- idaztekoa? ar...

- arkatza, bai!

- Imitazio mediatoa edo zeharkako adibidea: Laguntza modu hau ikasleak komunikazio-egoera "berri" bati aurre egin diezaion nahi dugunean erabil dezakegu. Kasu honetan, irakaslea izaten ahal da eskatutako ekintza aurretik egiten duena, ikasleari iharduera burutzeko zeharkako eredu bat emanez. Horrela, adibidez, Haur Hezkuntzako txoko-iharduera batean, plastikazko iharduera jakin bat burutzeko beharrezkoa den materiala eskatzen ikas dezala lortu nahi baldin badugu, irakasleak ere iharduera horretan parte hartuko du, eta, materiala eskatuko dio material-arduradunari, bere ikasleei eredu emanaz.

Halako egoeretan, onuragarri da oso ama-hizkuntzat euskara edo komunikazio-gaitasun haundiena duten ikasleen laguntza baliatzea, hortaz, lehendabiziko txandak emanez, beste ikaskideei imitatzeko ereduak eman diezazkiekete eta.

## 2.- SOLAS TXANDA MOTZETAN

Ikasleak era oso anbiguo edo eten batean hitz egiten duenean, berbaldiaren ulergarritasuna edo jarraikortasuna oztopatuz (forma egokia aurkitzen ez duelako edo), adierazitakoa argitu edo zabal dezan eska diezaiokegu.

Argitze hori eskatzeko era ugari daude, hauen artean egokiena, galdera baten bidez esandakoaren baieztapena eskatzean letzake

Haurra: -Begira, hemen dago... eh ... animalia bat.



Irak: - animalia ...?

Kasu hauetan argitze eskaera oso ireki edo inespezifikoak: - Nola? ez dizut ulertu; edo oso itxiak edo zuzenegiak direnak: -Ze animalia da? baztertu beharko genituzke.

Irakasleak egindako galdera baten aurrean, ikaslea trabaturik geratzen bada, irakaslearen zentzugabeko erantzunek edo makurrak direnek tratatze hori apur dezakete. Honela, ikaslea, bere harridura azalduz, irakasleak emandako erantzuna baina zuzenagoa den beste bat ematen ahalegin daiteke. Kontu haundia eduki beharko dugu irakasleak emandako erantzunak ikaskideen farrak sotaraz ez ditzan, zeren ikaslearen trabaketa areagotu bait liteke bizi izandako erredikulu sentsazioarekin.

Haurra: (hormirudian dagoen animalia txiki bat seinalatuz) eta hemen dago..., hau da ...

Irak.: Elefantea?

Haurra: ez elefantea ez! xagua.

Une jakin batzutan, zailtasun morfologiko edo sintaktikoen aurrean, aldeztu-erretik ezagutzen dituzten adibideak (sarritan agertzen direlako edo), erabil ditzakegu, honela orokortzen saiatuz.

Irak: -Andrea eta biok jostailuen bila joanen gara.

Koldo: -Maixu! Ni ere joan...naiz?

Irak: -Begira, Koldo. Komunera joan nahi duzunean, nola esaten duzu: Komunera joan...

Koldo: -naiteke

Irak: -Oso ongi, beraz orain: Ni ere joan naiteke?, esan beharko zenuke, ezta ?

Ikaslearen adierazpena erabat okerra eta forma egokia ezagutu beharko balu (gelan sarri erabili baitugu), zuzenketa zuzena egin baino lehen ikaslea zalantzan jartzea komenigarria da, horrela pentsatu eta autozuzenketa egiteko aukera emanez.

Irak.: -Ayudatu erraten al da? Ziur al zaude?

Hain ezagunak edota ohizkoak ez diren adierazpenetan irakasleak forma ez zuzenak edo ez egokiak -fonologia, semantika edo morfosintaksi mailan- erabiltzen baditu feedback zuzentzailearen teknikak erabil ditzakegu (teknika hauek, batez ere edukia osatzeko asmoz -esanahia zabaltzeko eta adierazpena luzatzeko, alegia- erabiliko ditugu; forma aldetik zeharkako zuzenketa egiten badugu ere). Feedback zuzentzailearen asmoa ez da zuzenketa esplizitua edota errepikapen bat eskatzea; osotuago, eboluzionatuago edo egokiagoa den eredu bat aurkeztea baizik. Tekniken artean hurrengo hauek bereiz ditzakegu:

- Hedapenak edo parafraasiak: Aurreko adierazpena osatuz edota berresanez, informazio gehiagorik erantsi gabe, egiten diren errepikapenak dira. Parafraasi hauek bi motatakoak izan daitezke:

-Lexikoak: hitz ez egokia, modu zuzenaz errepikatu (komunikazioa eten gabe).

Haurra: -Begira, etxe grande bat.

Irak.: -Ah bai, etxe haundi bat edota:

-Ah bai, ze etxe haundia.

-Morfosintaktikoak: esamolde okerra edo bukatu gabea, modu zuzenaz errepikatu (komunikazioa eten gabe).

Haurra: -Ama lanera...

Irak: -Bai, ama orain lanera doa.



Barrutia Ikastola. Gernika

- Luzapenak: edo, informazio gehiago erantsiz, enuntziatuaren errepikapenak:
  - Begira, hemen dago etxe haundi bat.
  - Ah bai, hemen dago etxe haundi eta polit bat, ondoan zuhaitza duena.
- Eranspenak edo ikasleen ekoizpenak irakaslearen berbaldian tartekatzea:
  - Irak: - ... orduan, mutila eskolatik alde egin eta...
  - Ikas: - Mutila, gaiztoa.
  - Irak: - Bai, mutil gaiztoak eskolatik aldegin zuen, eta ...

Feedback zuzentzailearen teknikak erabilpenak zuzenketa esplizitua premiagabeko bihurtzen du; azken hau erabiliz gero alderdi formalagoetara eta irakasleak komunikazio-gaitasun altuagoa lortu duen egoeretara mugatu beharko genuke. Dena den, hauetan ere, alderdi formalen zuzenketa benetako erabilerei buruz erreflexionatuz -berauek hobetzeko asmoz- egitea komenigarriagoa da, testu-pedagogiaren "testualizazio" eta "berrikuspenen" proposamenen ildotik, hain zuzen.

### 3.- BERBALDI LUZEAGO ETA OSOTUAGOAK SORTZEN JOAN DAITEZEN.

Honaino jasotako estrategiak irakasle-ikaslearen arteko solas txanda motzetan erabiltzeko egokiak dira; hots, helduak zuzenean gobernatzen dituen elkarrizketetan. Ikasleari berbaldiaren kudeaketa



autonomoago edota testu luzeagoen erabilpena eskatzen dizkieten elkarrizketa-egoeretan, berriz, Tough-ek(1989) deitutako elkarrizketa-estrategiak erabil ditzakegu. Estrategia hauek gogoeta egitea eta era efikazagoan komunikatzea eskatzen diote ikasleari. Horretarako, haren pentsamendua zabaldu eta ideiak argi eta garbi adierazteko erak bilatzera eraman nahi dituzten galderak zein iruzkinak egingen dizkiogu.

Tough-ek horrela sailkatzen ditu elkarrizketa-estrategia hauek:

- Orientabide-estrategiak: Gai bati buruz, era jakin batean, ikaslea gogoeta egitera gonbidatzen dutenak dira. Gaiaren alderdi jakin batean atenzioa finkatzen laguntzen diote, edota, hizkuntz funtzio jakin bat erabiliz erantzuna ematera gonbidatzen dute. Beraz, eskatutako erantzunaren izaera erakusten badiote ere, ez dira galdera itxiak, bere erantzun propioa ematen ahalbidetzen baitiote ikasleari. Galdera irekiak dira erantzuteko aukera ugari eskeintzen dutelako eta berbaldiarekin jarraitzea gonbidatzen dutelakotz.

Hizkuntz erabilera edota funtzio ezberdinak sortzea nahi dugunean erabil daitezke. Modu honetan, hauek bezalako galderek edota iruzkinak: "Zer gertatzen ari da hemen?", "Hitzegin ezazu ...-ri buruz", funtzioa informatzea (narrazioa, deskripzioa, e.a.) duten erantzunak eskatzen dituzte. Besteek, berriz, arrazoiak ematea edo aurrikustea eskatuko dute: "Zer dela eta gertatu da hau?", "nola gertatu da hau?", "zergatik egingo ote zuen?".

- Errazte-estrategiak: norabide jakin batean sakontzen lagundu nahi diote ikasleari. Hiru motatakoak izan daitezke:

a.- Osatzaileak: Emandako erantzuna osotzen eta gehiago lan-tzen laguntzen diote; horretarako xehetasun gehiago, azalpenak, justifikazioak eskatuko dizkiogu.

Adibideak:

- Zaila suertatu zaizu? zein zen arazoa?
- Arrazoi gehiago bururatzen zaizkizu?

b.- Fokatzailerik edo ardatzatzailerik: Estrategia hauek ikaslearen atenzioa zentratu nahi dute kontuan hartu ez duen gairen alderdi jakinen batean.

Adibideak:

- eta honi buruz (alderdi jakin batetik ohartaraziz) zer esaten didazu?
- basoan zeintzu ziren ugarienak pagoak edo aritzak?

c.- Egiaztatzeak: Estrategia hauek, ikasleari, esan duena ziurtatzea, egiaztatzea eskatzen diote. Beti ere, kontuan hartuz helburua adierazitakoa, batik bat edukiari dagokionez, argitzea izango dela.

Adibideak:

- Zuhaitz guztiak pagoak al ziren?
- Hogeiren bat zuhaitz besterik ez ziren?

- Informazio-estrategiak: Ikasleari informazioa ematean dautza. Xede bikoitza dute: alde batetik parte hartzeko erabilgarriak izan daitezkeen ekintzak edota ezagupenak proposatzea eta, bestetik, informazioa antolatzeke eta emateke erari buruz ereduren bat eskaintzea.

- Laguntza-estrategiak: Ikaslearen ahaleginak erreforzatzen dituzten iruzkinak edo estrategiak dira. Horretarako, haren ideiak azaltzen jarraitzea animatzen duen solaskide arretatsu baten presentzia bermatzen zaio ikasleari.

- Ah bai, konturatzen naiz!.

-Bukatzeko estrategiak: Elkarrizketa bukatzeko edo gaiak aldatzeko seinale argiak eskaintzen dituzte: ikasleak azalduakoa balioztatuz, beste azpizgai bati ekitea eskatu, ...

Azkenik, komunikazio-gaitasun dexente duen ikasleari ahozko testu monokudeatuen ekoizpenean (iraupen eta autonomia handiagoa suposatzen dutenak), lagundu nahi baldin badiogu, testu-pedagogiak planifikatzeko, testuaratzeko eta berrikusteko estrategiak baliatu ditzakegu.

### III.- KOMUNIKAZIO EGOERAK ANTOLATZEKO ETA DINAMIZATZEKO BIDEAK

Eredua ematea eta zuzentzea garrantzia badu, are garrantzitsuago izango da komunikazio egoera egokiak antolatzea eta dinamizatzea. Haurra, hortaz, komunikazio egoera hauetan parte hartuz, bere irakasle eta ikaskideekin elkarreaginez, joango baita piskanaka-piskanaka bigarren hizkuntza bereganatzen.

Hizkuntza bat ikatea ez baita imitazio eta zuzenketa hutsaren bidez ematen den prozesua; baizik eta zentzua eman eta esanahia eraikitzeke prozesu bat. Eta esanahia errekonozitu eta eraiki ahal izateke haurrak komunikazio egoera esanguratsuetan parte hartu behar du, hori da hizkuntza berri hori erabili egin behar du.

Erabilera-egoera hauek antolatzea eta dinamizatzea da irakaslearen eginkizun nagusia.



Haiantzako berri den hizkuntzan garatzen ari den komunikazio egoera horretan parte hartu ahal izateko haurrek beharko dute

- . egoera ezagugarri eta aurrikugarri izan dadila
- . beste batzuren eskuhartzea, harien partaidetza gidatzeko.

hots, besteekin "esparru menta" bat konpartitu behar dute (eta bestekin konpartitua den aldetik esparru hori soziala izango da.).

Bestearen partaidetza lagungarri egingo zaio haurrari baldin eta irakasleok egoeraren antolatzaile eta dinamizatzaile trebeak bagara; hori da konpartitutako esparru hori eraikitzen baldin badakigu.

### III.A. IRAKASLEA KOMUNIKAZIO-EGOERAK ANTOLATZEN

Antolatzaile bezala, irakasleoi dagokiguna da egoera ezagunariak -bere osotasunean- eta arriskugarriak -bere bilakaeran- proposatzea haurrei. Haurrek parte hartu ahal izateko, egoeraren nondik norakoa ulertu eta gertatuko diren gauzak nolabait aurreikusteko gauza izan behar dute, hots, egoera bera ulertu behar dute.

Egoera bere osotasunean ulertzen badute parte hartu ahal izango dute, eta parte hartuz eraiki ahal izango dituzte hizkuntz osagaien esanahiaren inguruko hipotesiak. Hipotesi hauek egoera berrietan parte hartuz, egiaztatzen eta egokitzen - fintzen - joango dira, haien esanahi zehatzetara hurbilduz. (Hasiera batean haurrek egoeraren ulermen globala baldin badute, bertan ematen diren mezuak ere ulertuko dituzte -edo mezu jakin horiek egoera jakin horretan zertarako balio duten, hots, duten esanahi konkretua ulertuko dute-. Ulermen global horretan oinarrituz, hizkuntz osagaiak identifikatzen eta haien esanahiaren inguruan hipotesiak egiten joan daitezke. Nola eta hizkuntz osagai horiek egoera berrietan agertuko diren, hipotesi horiek egokitzen eta fintzen joango dira, osagai linguistiko horien esanahia egoera berrietan ezagutuz eta plurifuntzionalera piskanaka hurbilduz).

Eta, zertaz balia gaitezke irakasleok egoera ezagugarri eta arriskugarri egiteko?

Egoera hainbat osagaien inguruan (hitzezkoak ez direnak, alegia) haurrek duten ezagutzan oinarri gaitezke. Osagai hauek espazio-antolaketa, denbora-antolaketa eta ekintzen barne-antolaketaekin estuki loturik daude, hots, egoeraren espazio, denbora eta ihardunbidea konpartitzea da elkar ulertzeko euskarria.

Horretarako, haurrek konpartitzen omen dituzten esperientzietan oinarritu behar gara. Eta konparti ditzazketen esperientziak zeintzuk diren erabakitzeke hiru iturri ditugu irakasleok:

. Haurrekin amankomunean dugun "erreferentziak marku sozial" a (Coll etab, 1992): gure ingurune sozio-kulturaleko haurren-engan ohikoak diren esperientzia eta ezagutzak.

. Amankomuneko "erreferentzi-marku espezifiko" a (Coll, etab, 1992); hots, elkarrekin izandako esperientziak.

Eta

. Amankomuneko "erreferentzi-marku espezifiko" berriak sortaraztea, ihardunbide konpartiturako egoera berriei bidea irekitzeko.

Laburbilduz, irakasleon eginkizun nagusia, eredia ematean edo zuzentzean baina, konpartitutako testuinguru mentala eraikitzean datza. Konpartitutako testuinguru horrek elkarren arteko ekintzarako



Barrutia Ikastola. Gernika

oinarri izango da eta hitzezko komunikazioari euskarri emango dio. Halako markuan, esanahiaren negoziatorako parada izango dugu (haurrek hitzezko hizkuntzari zentzua emango diote eta esanahi berriak eraikiko dituzte), eta horri esker bigarren hizkuntzaz jabetuko dira.

#### *Gelako ekintzetarako posibilitate zenbait:*

1) Haur gazteenekin, murgiltze programan hasi berriekin

a) Gelako ohitura eta azturekin loturiko hainbat eginkizun komunikazio egoera bihurtu eta, partaidetza ahalbideratzeko, sistematizatu. Hau da, eginkizun-horietako oinarritzko formato egonkor bat sortu, non ihardunbidea erdi-erritualizaturik edo pautaturik dagoen, haurren partaidetzarako euskarri izan dadin (etorri direnak eta ez direnak ikusteko, lanerako materialak banatzeko, gertakizun bat besteekin kontatzeko, nolako egiraldia egiten duen ikusteko,...)

b) Gelako ohiko lanekin era berean jokatu: hots, hainbat txoko, tailer edota aktibitate-sistemari egituraketa ezagugarri eta aurrikugarri eman.

c) Gelako lan-proiektuetarako ihardunbide jakin bat definitu: erabakiak hartzeko, egitekoa antolatzeko eta lan egiteko une egonkorak erabiliz; hau da, egituraketa-eredu bati jarraitu (zer egin eta zertarako definitzeko, iraupena erabakitzeke, egitekoak planifikatu eta banatzeko, lantxoak burutzeko, emaitzak baloratzeko uneak, adibidez)



d) Hurrek ipuinekin etab.ekin (omen) duten espoerientzia erabili, ipuinak konpartitutako ekintzetarako esparru edo marku bihurtuz; hots, hainbat ipuin antzeztu-bizitu-jolastu edota elkarrekin iharduteko marku bezala erabili., Artigalek proposatutako bidetik.

## 2) Neska-mutil kozkorragoekin:

Esparru konpartitu hori eraikitzeke hitzek ere lagunduko digute. Komunikatzeko gaitasuna areagotu ahala, ez-hitzeke eta hitzeke osagaiak izango dira egoera konpartituaren euskarri; aurrerago, aldiz, hitzeke osagaietan oinarrituko da batik bat (garapenean aurreratu ahala hitza bera izango da esparru konpartituak eraikitzeke tresna nagusia: ez-hitzeke testuinguru mezuen esanahia eraikitzeke ezinbesteko euskarri gisa erabiltzetik, batez ere kontestuaz - hots, hitzeke kontestuaz- baliazera igaroz). Batjin-ek esan bezala "hitza bera da solaskideen arteko esparru amankomuna".

Gauzak horrela, testuen inguruan garatzen joango diren-era askotako ezagutzak izango dira(testua bera kontestuan kokatu ahal izatea, testuen egituraren ezagutza, ohiko testu-antolatzaile eta lokailuen ezagutza,...) elkar ulertu ahal izateko euskarri garrantzitsuenetakoa.

Dena den, egoera egonkorren erabilpenak (nahiz eta askoz ere irekiago izan) lagunduko digu komunikazio eta neska-mutilen partaidetza lortzen.

Komunikazioari dagokionenz, gogoratu behar dugu komunikazio-egoera dibertsifikatuetan parte hartzea komunikazio-gaitasuna garatzeko ezinbesteko baldintza dela. Eta gela barnean komunikazio-

egoera anitzak sortzeko biderik naturalena eta errazena da dinamika komunikatibo eta kooperatiboaren arabera antolatzea eguneroko iharduna; bai bizikidetzari eta baita lana eta ikasketari dagokionez ere.

Ikasketak eta lanak modu kooperatibo-komunikatiboan bideratzeko, tailerrek, aktibitate-sistemek eta proiektu edo tareetan oinarrituriko Sekuentzia Didaktikoek eskaintzen digute marku oso egokia; bai edukien inguruko lana burutzerakoan ( elkarlan saioetan informazioak bilatu, landu, antolatu, elkarri aurkeztu eta hartzaile batentzat prestatzeko), baita proiektua antolatu, garatu eta baloratzekoan ere (zertarako, norentzat, zer , nork, nola, noizko etabar erabakitzeko).

Sekuentzia Didaktiko hauen prozedura ezezik, helburua ere komunikatiboa baldin bada (bigarren mailako neska-mutilen liburutegirako eta beraiei kontatzeko ipuinak prestatzea , adibidez), komunikazio-egoerak plazaratzeko bi parada berri ditugu:

- . Xede-eginkizuna bera burutzeko saioak eta
- . enuntziatio-egoera aztertzeke eta testua enuntziatio-egoerarik egokitzeko lan saioak.

Partaidetzari dagokionez, komunikazio-egoera egonkorak erabiltzeak hauxe ahalbideratuko du:

- . komunikazio- egoeraren ardura eta gestioa piskanaka ikasleengan uztea (kontrolaren-lagapen prozesua ) eta
- . hurren arteko komunikazio-elkarrekintzak irekiago eta ohikoagoak izatea ikasleek ez baitute irakaslearen gidaritzaren menpe egon beharrik, egoera ezagugarri eta aurrikusgarri baten aurrean baldin badaude (zer egin, nola jokatu behar duten baitakite)

## III.B.- IRAKASLEA KOMUNIKAZIO-EGOERAK DINAMITZATZEN:

Irakasleok, sortutako komunikazio-egoeretan, hurren partaidetza sustatu eta lagundu behar dugu.

Horretarako honako bide hauek ditugu:

= Hurrengan komunikazio beharra sortu. Egoera beraren definitzioak sortaraziko du komunikatzeko benetako beharra, proposaturiko egoera funtzionala baldin bada ("zertarakoa" eta "norantzakoa" argi eta kontsetualizatu bat baldin badu, alegia) eta esanguratsu edo signifikatibo suertatzen baldin bazaie (haien esperientzia-munduarekin uztartzen edota hurren proposamenetan oinarritzen baldin bada).


=Arreta eta ekintzaren garapena konpartitzen ari garela zaindu. Horretarako, hurren ekimenen gainean konpartitutako egoerak erai-ki edota geuk proposatzen diegun egoerak ezagugarri eta esanguratsu suertatzen zaizkiela ziurtatu behar dugu.

= Hurren komunikazio-ekimenak arretaz jaso, ulertzen ahalegindu eta jarraipena. Hurren ekimenak ez zapuztearren, garrantzi berezia dute zuzenketak egiteko erabiltzen ditugun estrategiak; horrexegatik proposatu ditugu, bigarren atalean, komunikazioa hausten ez dituzten estrategiak (feed-back zuzentzailearen teknikak deitu ditugunak).


= Parte hartzeke ihardunbide pautatuak izan: egoera egonkorrean parte hartzeke prozedura egitaratuak erabili (Adibidez: "kontakizunen ordua"n nori-zer-non-noiz pautari jarraitu) hurren ekinbidea gidatzeko. Pauta are argiago edo itxiago izango da laguntza handiago behar dutenekin; laguntza gutxiago behar duten neurrian, pauta laxatzen joan daiteke.

GUIA DE LIBROS  
PARA LOS  
NIÑOS  
(0-7 años)

HAUR  
TXIKIENTZAKO  
LIBURU-GIDA  
(0-7 urte)



## HAUR TXIKIENTZAKO LIBURU-GIDA (0-7 URTE)



skoriatzako Irakasle Eskolako Haur Liburu Minte-

giak irakurritako liburuetan oinarrituta, gida hau argitaratu du.

Lan honetan liburu interesgarriak aztertuz eta gomendatuz gainera, hainbat ikuspegi nola gai zehatzen arabera ageri dira liburuak sailkatuak.

Hala nola: ekologia, umorea, abentura, afektua, familia arazoak, nortasuna, heriotza, etabar.


Uste dugu modu honetan sailkatzeak, baduela bere abantaila, batik-bat irakasleentzat, edozein gai sakontzeko bideak errezten dituelako.

Hona hemen aurki daitezkeen gai interesgarri batzuk:

- Afektua
- Ametsa
- Eguberria
- Esfintereak,
- Ezinduak
- Famili arazok
- Heriotza
- Marginazioa
- Nortasuna
- Pakea
- Rol sexuala
- Sorginok
- etab.



Heriotza



Esfintereok

Ezinduok




Afektua





# JAKINGARRIAK

Dokumentazio Zentrua • 0-7 urte • IRAKASLE ESKOLA • Eskolatz



EUSKO JAURLARITZA  GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION